

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea zenbait zerga ordenantza aldatzeari

Udal honek, 2025eko urriaren 14an egindako ezohiko osoko bilkuran, zerga hauen aldaketari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen:

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Jardurera ekonomikoaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Eraikuntza lanen, instalazioen eta obren zerga arautzen duen ordenantza.
- Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio-jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren a), c), d), e) eta f) epigrafeak.
- Zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik prezio publikoak arautzen duen ordenantzaren 9.2 epigrafea.
- Joslastoki eta goizeko gela zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskala.
- Udal materialaren mailegua eta udal lokalen erabilera lagatzea arautzen duen ordenantza.

Erabaki hori jendaurrean jartzeko epean (2025eko urriaren 22ko ALHAOn, 120. zenbakian, eta Aguraingo Udaleko iragarki-taulan argitaratu zen), alegazioak aurkeztu ziren, eta udalbatzak 2025eko abenduaren 5eko ezohiko osoko bilkuran ebatzi zituen.

Era berean, bilkura horretan aipatutako udal ordenantzen aldaketak behin betiko onartzea erabaki zuen osoko bilkurak.

Beraz, Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren 2021eko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoa betez, testu osoa argitaratzen da, indarrean sar dadin.

Agurain, 2025eko abenduaren 5a

Alkatea

RAUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR

**ORDENANTZA 1. ZK****AGURAINGO UDALA ARABAKO LURRALDEA****ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA
ORDENANTZA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua.**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributu honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eskatuko du, ordenantza honen arabera. Tarifa aplikagarriak eta ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantza honen zati da.

2. artikulua.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga zuzeneko tributu erreala da, eta Aguraingo udalerrian dauden landa- eta hiri-ondasun higiezinaren balioa zergapetzen du. Ordenantza hau udalerri osoan ezarriko da.

II. ZERGA GAIA**3. artikulua.**

1. Landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko ondoko eskubideen titular izatea da zerga gaia:

- Administrazio emakida baten titulartasuna, ondasun higiezinaren gainekoa edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gainekoa.
- Lurrazal eskubide errealearen gainekoa.
- Gozamen eskubide errealearen gainekoa.
- Jabetza eskubidearen gainekoa.

2. Aurreko paragrafoan zehaztutako zerga gaietatik, bertan ezarritako hurrenkerari jarraituz, egoki den zerga gaia gauzatzeko ondasun higiezin hartan zehaztutako gainerako modalitateei ez atxikitzea ekarriko du berekin.

3. Zerga honi dagokionez, zerga ordenantza honen 4. artikuluan zerrendatutakoak izango dira landa eta hiri ondasun higiezin eta ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak.

4. Ondasun higiezin bera zenbait udalerrian badago, zerga honi dagokionez, udalerri bakoitzean hartzen duen azaleraren arabera izango da batekoa eta bestekoa.

4. artikulua.



1. Katastroaren ondorioetarako, ondasun higiezin izango da izaera bera eta bakarra duen lurzatia, baldin eta udalerrri baten barruan badago eta poligono batek mugatzen badu; poligono horrek jabe baten edo batzuen (pro indiviso) espazio eremua mugatzen du eta, hala bada, jabea edozein dela ere, eremu horretako eraikuntzak ere ondasun higiezin izango dira, higiezina dela-eta titularrak dituen gainerako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere ondasun higiezin izango dira:

a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatuak, jabetza horizontaleko erregimen bereziari lotuak; elkarri lotutako elementu pribatuek osatutako multzoak, baldin eta egintza bateratuan eskuratu badira, eta, arauz ezartzen diren baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak, titular baten erabilera eta gozamen eskusiboari eta iraunkorrari pro indiviso atxikiak badira. Katastroaren ondorioetarako, elementu komunak arauzko eran gehituko zaizkie ondasun higieziinei.

b) Artikulu honen 4. paragrafoan jasotakoak.

c) Ondasun higiezinaren gaineko edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio emakida baten espazio eremua, salbu eta aurreko idatz zatietan xedatutako egoeretan.

2. Honako hauek dira hiriko ondasun higiezin:

a) Hiri lurzorua, horrelakotzat honako hauek hartuta:

a.1) Hirigintza planeamenduaren arabera hiri lurzoru edo lurzoru urbanizatu direnak, eta horien baliokideak.

a.2.) Lurzoru urbanizagarriak eta lurralde antolamendurako eta hirigintzako tresnen arabera urbanizatuko diren edo urbaniza daitezkeen lurrak, hain zuzen ere mugatutako esparruetan daudenak, eta mota honetako gainerako lurzoru guztiak hirigintzako tresna batek haien garapenerako arauak ezartzen dituenen.

a.3) Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

b) Hiriko eraikinak, honakoak esaterako:

b.1) Eraikinak, edozein direlarik, egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera, nahiz eta eraikitzeke eragatik guztiz eramangarriak izan, eta nahiz eta hartzen duten lurra ez izan eraikuntzaren jabearena; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritza eta industria instalazioak, adibidez, dikeak, tankeak eta zamatze tokiak.

b.2.) Urbanizazio eta hobekuntza obrak, lur berdinketak esaterako, eta espazio irekiak erabiltzeko egingo diren obrak. Hor sartzen dira azoka barrutiak; aire zabaleko deposituak; kirola egiteko zelai edo instalazioak; kaiak; aparkalekuak eta eraikuntzen ondoko espazioak.

b.3.) Ondoko idatz zatian landa izaerako eraikuntza gisa berariaz kalifikatuta ez dauden eraikuntzak.



Baina, izaera bereziko ondasun higiezinak biltzen dituzten lurzoruak ez dira hiri lurrak izango.

3. Landa lurra izango da aurreko idatz zatian xedatutakoari jarraituz hiri lur ez dena, ez eta ezaugarri bereziak dituen ondasun higiezinaren zatia ere. Zerga honen ondorioetarako, batez ere honako hauek izango dira landa ondasun higiezin:

- a) Hiri lurrak ez direnak, aurreko paragrafoaren a) idatz zatian ezarritakoaren arabera.
- b) Landa eraikinak, hau da, nekazaritzarako eraikinak edo instalazioak, landa lurretan daudenak eta ezinbestekoak direnak nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenen garapenerako.

Zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabilitako estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitze erabilitako materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi batez gordetzeko, jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereiztezin baitira.

4. Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak berariazko erabilera duen multzoa osatzen dute, eta multzo horren zati ondorengo hauek dira: lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza obrak. Multzoa, berez, horiek guztiak bateratu egiten dituzenez, eta beti batera eutsi, funtzionatzeko, ondasun higiezin bakartzat joko da katastroaren ondorioetarako.

Izaera bereziko ondasun higiezinak joko dira, aurreko paragrafoaren arabera ondorengo talde hauetan sartzen direnak:

- a) Energia elektrikoa eta gasa ekoizti eta petrolio birfintzekoak, eta zentral nuklearrak.
- b) Presak, ur jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne; ureztaketan erabiltzen direnak izan ezik.
- c) Bidesaridun autobide, errepide eta tunelak.
- d) Merkataritzarako aireportuak eta portuak.

III. SALBUESPENAK

5. artikulua.

1. Honako ondasunei ez zaie zerga ezarriko:

- a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal edo toki erakunde jabetzako ondasunak, defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza eta presondegi zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.
- b) Unibertsitate publikoen jabetzakoak, hezkuntza zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.
- c) Errepideak, bideak eta gainerako lurreko bideak, aprobetxamendu publiko eta doakoak badira.



d) Kuadrilla, udal, ermandade eta administrazio batzarren jabetzakoak, zerbitzu edo erabilera publikoa badute xede. Aurretik esandakoa ez da aplikatuko ondasunak edo hauek atxikita dauden zerbitzu publikoa administrazio emakida baten pean edo zeharkako beste kudeaketa mota baten pean daudenean, honako kasu honetan izan ezik: horren titularra aipatutako entitatearekin lankidetzaz jarduerarik egiten duen irabazteko xederik gabeko elkarteak bada, jarduera horiek haren organo eskudunak udalaren interesekotzat jota.

Orobat, ez zaie zerga hau ezarriko baso eta gainerako ondasun higieziei, horien gainean herri aprobetxamenduren bat dagoenean, ez eta herri basoei ere.

e) Hazkunde geldoko espezieez landatutako basoak, titulartasun publikokoak edo pribatukoak izan.

Salbuespen hori hazkunde geldoko zuhaitzei dagokie, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren espezie izendegia kontuan hartuta, horien aprobetxamendu nagusia egurra bada, eta espezie horiekin landatutako basoaren zatian bakarrik, baldin eta zuhaiztiaren dentsitatea espezieari berez dagokiona bada.

Orobat, aurreko idatz zatian jaso ez diren mendietan, korporazio, entitate eta partikularrek baso berritzaren bat egin duten zatia, bai eta Basoen arloko administrazioak proiektuen edo plan teknikoan pean dauden zuhaiztietan lehengoratzten ari diren zatia ere bai. Paragrafo honetan aurreikusitako salbuespenak hamabost urteko iraupena izango du, horretarako eskabidea egin eta hurrengo zergalditik zenbatzen hasita.

f) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarilaren 3an gai ekonomikoei buruz estatu espainiarrek eta Vatikanok sinatutako akordioan araututakoaren arabera.

g) Legeak onartutako elkarte konfesional ez-katolikoaren ondasun higiezinak, Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua aipatzen dituen lankidetzaz hitzarmenetan ezartzen denaren arabera.

h) Gurutze Gorriaren eta horren antzeko erakundearen ondasunak; arauz ezarriko da zein diren horiek.

i) Atzerriko gobernuen ondasun higiezinak, ordezkaritza diplomatikotarako edo kontsulatu ordezkaritzaarako erabiltzen direnak, elkarrekikotasuna izateko baldintzapean edo indarreko nazioarteko hitzarmenen arabera.

j) Trenbideek okupatutako lurrak eta lur horietako eraikinak, trenbideok ustiatzeko behar diren geltokiak, biltegiak edo beste edozein zerbitzu, baldin eta trenbidearen ustiapenerako ezinbestekoak badira.

Ondorioz, ez dira salbuetsiko zerga ordaindu behar izatetik ez ostalaritza, ikuskizun, merkataritza eta aisialdi establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzarako erabiltzen diren etxeak, ezta zuzendaritzaren bulegoak edo industria instalazioak ere.

k) Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikulua 2. apartatuaren a) letran aipatzen den monumentu-izaera duten ondasun higiezinak. Salbuespen hori babes berezi eta ertaineko kultura-ondasun deklaratzeko diren ondasun higieziei aplikatuko zaie, baldin eta maiatzaren 9ko 6/2019 Legea zehazten dituen baldintzak betetzen badira.



Era berean, salbuetsita egongo dira Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikulua 2. apartatuaren b) letran aipatutako monumentu-multzo bateko ondasun higiezinak. Baina salbuespen hori kultura-ondasun deklaratzeko diren ondasun higieziari bakarrik aplikatuko zaie, baldin eta, maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak zehazten dituen baldintzak beteta, babes bereziko araubidearen barruan badaude.

Halaber, salbuetsita geratuko dira Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak aipatzen duen Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasun higiezinak.

l) Irakaskuntzarako erabiltzen diren ondasun higiezinak, baldin eta, osorik edo zati batean, hezkuntzako itunaren pean badaude; horretarako, itunaren menpeko irakaskuntzari eskaintzen dioten azalera hartuko da kontuan.

m) Zerga bilketaren kudeaketan, eraginkortasun eta ekonomia arrazoiak direla-eta, salbuetsita egongo dira 650 eurotik beherako zerga oinarria duten hiri ondasun higiezinak. Halaber, arrazoi beroriengatik, landa ondasun higiezinak ere salbuetsita egongo dira, baldin eta subjektu pasibo bakoitzak udalerrian dituen era horretako ondasun guztien zerga oinarria 1.220 euro baino gutxiago bada".

n) Irabazteko xederik gabeko erakundeen titularitatepekoak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak (irabazteko xederik gabeko erakunde zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoa) ezarritako moduan. Ez zaie salbuespena aplikatuko Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoei.

o) Kuota likidua 1,5 eurotik gorakoa ez duten ondasun higiezinak.

IV. SUBJEKTU PASIBOA

6. artikulua.

1. Zergadunak diren neurrian, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. paragrafoan zehazten diren pertsona naturalak zein juridikoak eta erakundeak, bai eta testamentu- ahalordea egiaitzeko edo gozamen ahaltsua baliatzeko zain dauden herentziak ere dira subjektu pasibo, baldin eta zerga honetako zerga gaia osatzen duen eskubidearen titular badira.

Ezaugarri bereziak dituen higiezin beraren gaineko emakidadun batzuk badaude, zergadunaren ordezkia kanon handiena ordaindu behar duena izango da.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, subjektu pasiboak zuzenbide erkideko arauen arabera jasandako zerga-karga jasanarazteko duen ahalmenari kalterik egin gabe.

Udalek zergaren kuota likidoaren zatia jasanaraziko diete subjektu pasibo ez direnei, baldin eta beren herri-jabariko edo ondarezko ondasunak kontraprestazio bidez erabiltzen badituzte, eta horiek jasanarazpena jasatera behartuta egongo dira. Beraz, kuota jasangarria honela zehaztuko da: erabilitako azalerari eta erabilera-eskubidearen errentari, lagapen-hartzaile bakoitzari zuzenean lotutako eraikuntzari dagokion katastro-balioaren zatiaren arabera.



Herri erabilerakoak edo ondare ondasunak kontraprestazioz erabiltzen dituztenei jasanaraziko diete udalek zergaren kuota likido osoa, nahiz eta subjektu pasibo izan ez.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako emakidadunei jasanarazi ahalko die dagokien kuotaren saria, bakoitzak ordaindu beharreko kanonen arabera, dagokien proportzioan.

V. ZERGA OINARRIA

7. artikulua.

1.- Ondasun higiezinaren balioak osatuko du zerga oinarria.

2.- Zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezinaren balio gisa, hauen katastro balioa hartuko da; katastro balioa ondasun higiezinaren merkatu balioa erreferentziatzat hartuta finkatuko da, eta ezin izango da merkatu balio hori gainditu.

8. artikulua.

1.- Hiri ondasun higiezinaren katastro balioa lurzorua eta eraikinen balioak osatuko du.

2.- Lurzorua balioa kalkulatzeko, bertan eragina izango duten hirigintza egoerak hartuko dira kontuan.

3.- Eraikuntzen balioa kalkulatzeko, hirigintza eta eraikuntza baldintzak kontuan hartzeaz gain, haien izaera historiko-artistikoa, erabilera eta xedea, kalitatea eta antzintasuna eta eragina izan dezakeen beste edozein faktore hartuko da kontuan.

9. artikulua.

1.- Landa ondasunen katastro balioa lurra eta eraikuntzen balioak osatuko du.

2.- Landa lurra balioa honelaxe kalkulatu da: arauz ezarriko den interesa zein lurra errenta erreal edo potentzialak kapitalizatuz, lurra produkzioarako, labore desberdinetarako edo aprobetxamendurako duen gaitasunaren arabera eta lur horien katastro ezaugarri jarraiki.

Aipatutako errentak kalkulatzeko, nekazaritzarako ezaugarri homogeenak dituzten zona edo eskualde bakoitzean dauden errentamendu edo partzuergoak aztertzei lotutako datuak har daitezke kontuan.

Idatz zati honen ondorioetarako, halaber, landa lurra egindako hobekuntzak, zeinek haren balioaren zati bereizteza osatzen duten, eta, hala badagokio, produkzioan sartu aurretik igarotako urteak hartuko dira kontuan. Baso produkzioarako erabiltzen diren lurra izanez gero, landaketa garaia, zuhaitzen egoera eta aprobetxamendu zikloa hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, aprobetxamendu handiagoa bultzatuko duten ohiko produkzioen bitartekoen erabilera hartuko da kontuan; ez, ordea, aparteko ohiko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustiapenaren izaera edo udalerriaren ezaugarriak direla medio zaila gertatzen bada errenta errealak edo potentzialak ezagutzea, ondasunen katastro balioa kalkulatu ahal izango da, hobekuntza iraunkorrak eta landaketak barne, nekazaritzako faktore tekniko eta ekonomikoak kontuan izanik, bai eta eragina duten beste egoera batzuk.



3.- Landa eraikuntzen balioa aurreko artikulua 3. paragrafoan jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da, eraikuntzen izaerak hori ahalbidetzen duen neurrian.

10. artikulua.

Aipatutako katastro balioak, dagozkien Higiezin Katastroetan dauden datuetatik abiatuta finkatzen dira, Diputatuen Kontseiluak martxoaren 22ko 158/2016 Erabakian ezarritako arau tekniko eta irizpideekin bat etorritik. Erabaki horrek behin betiko onartzen du Aguraingo udal-mugarteko Ondasun Higiezin gaineko Zergaren lurzorua eta hiri-eraikuntzen balioen ponentzia (2018ko otsailaren 16ko ALHAO, 22. zk.). Katastro-balio horiek berrikusi, aldatu edo eguneratu ahal izango dira, kasuen arabera, 12., 13. eta 14. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitako baldintzetan.

11. artikulua.

Landa eta Hiri Higiezin katastroetan landa eta hiri izaerako ondasun higiezi buruzko hainbat datu eta deskripzio ageri dira, hala nola: azalerak, kokapena, mugak, labore edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako alderdi fisiko, ekonomiko eta juridikoak, lurralde jabetza ezagutzera emango dutenak eta hura definituko duten alderdi eta erabilera desberdinei dagokienez.

12. artikulua.

1.- Katastroko balioak 7. 8. 9. eta 10. artikuluetan araututako balorazio irizpideen arabera finkatuko dira.

2.- Horretarako, Arabako Foru Aldundiak hiri lurzorua mugaketa egingo du alde aurretik, indarrean dauden hirigintzako xedapenei jarraituz. Dena dela, lurzorua izaeran aldaketarik egin ez den udalerrietan, ez da beharrezkoa izango mugaketa berria egitea.

3.- Aurreko paragrafoan aipatutako lurzorua mugaketa lanak egin ondoren, Arabako Foru Aldundiak balio txosten egokiak landuko ditu, eta bertan katastro balioak finkatzeko beharrezkoak diren irizpideak, balorazio taulak eta gainerako elementuak jasoko dira.

4.- Hiri-lurzorua mugaketari eta Balio Ponentziei buruz, Arabako Foru Aldundiak audientzia emango die kasuan kasuko udalei, gehienez ere 15 eguneko epean bidezkotzat jotzen dutena jakinaraz dezaten.

Udalaren txostena ikusita, Arabako Foru Aldundiak egoki deritzona ebatziko du.

5.- Foru Aldundiak udalari baterako hiri-lurzorua mugaketa onartu ondoren, jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten. Jendaurreko erakusketa Udalaren bulegoetan egingo da, eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta lurralde horretan gehien saltzen diren egunkarietan iragarriko da.

6.- Onartutako balio-ponentziak Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, Udalaren ediktuen bidez, horien ondoriozko katastro-balioak eragina izan behar duten urtearen aurrekoan.

7.- Ponentziak argitaratu ondoren, horien ondoriozko katastro-balioak banan-banan jakinarazi beharko zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, edo subjektu pasiboa edo horretarako



baimendutako pertsonari, zehazten diren bulego publikoetan, balio horiek eragina izan behar duten urtearen aurreko urtea amaitu baino lehen.

Pertsonazio bidezko jakinarazpena erregelamendu bidez arautuko da, eta epe bat ezarriko du jakinarazpenak erretiratzeko; epe hori ezin izango da izan hamar egunetik beherakoa, iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Jakinarazpenak kentzeko ezarritako epea igarotakoan, jakinarazpena erretiratu ez bada, dagokion administrazio-egintza jakinarazitzat joko da ondorio guztietarako.

8.- Horrela ezarritako katastro-balioak zortzi urtean behin berrikusi beharko dira.

13. artikulua.

1.- Katastro balioak foru aldundiak aldatuko ditu, ofizioz edo udalak eskatuta, honako kasu honetan: hirigintza planeamenduak edo beste egoera batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela katastro balioen eta udalerrian edo bertako guneren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinaren merkatuko balioen artean.

2.- Aldaketa horrek, ezinbestean, balio txosten berriak lantzea eskatuko du, aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baina hiri lurzoruaren mugaketa berria egin beharrik gabe.

3.- Balio txostenak landu ostean, Foru arau honen aurreko artikuluan araututako izapide eta prozedurei jarraituko zaie.

14. artikulua.

Aipatutako katastro balioak Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren gaineko foru arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera eguneratu ahalko dira.

VI. ZERGA KUOTA

15. artikulua.

1.- Zerga oinarriari karga tasa aplikatuz lortuko da zerga honi dagokion kuota osoa.

Kuota osoari legez ezarritako hobariak kenduta geratzen den zenbatekoa izango da kuota likidoa.

2.- Karga tasa I. eranskinean agertzen dena izango da.

VII. HOBARIAK

16. artikulua.

1. Zerga kuotaren 100eko 95eko hobaria izango dute landatuta dauden edo basoa duten landa lurrek, baldin eta lurrok babestutako inguruetan badaude.

2. Urbanizatzeko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede osatzen duten ondasun higiezinak, obra berrikoek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek



100eko 90eko hobaria izango dute, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik, eta haren ondasun higiezinaren ondasunetan azaltzen ez badira.

Interesatuek, eskabidearekin batera, kontu-ikuskariaren edo -zentsorearen adierazpena aurkeztu beharko dute, kontu horiek fiskaltzen dituen, alderdi hori ziurtatuz, edo Sozietateen gaineko Zergaren laburpena edo eraikitzen ari diren higiezinak ibilgetuaren partidan ez sartzea ondorioztatu daitekeen beste edozein dokumentu.

Hobari hori aplikatzeko epea obrak hasten diren zergaldiaren hurrengoan hasiko da, eta haiek amaitzen diren zergaldiaren hurrengoan amaituko, baldin eta denbora horretan urbanizatzeko edo eraikuntza lanak benetan egiten badira. Nolanahi ere, aipatzen den epea ezingo da hiru urte baino luzeagoa izan.

Bere lurren urbanizazio obregatik aipatutako hobaria jaso duen interesdunak lur horietan higiezinak sustatzen baditu, aplikazio epea bost zergaldikoa izango da.

3. Babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte etxebizitzek zergaren kuota 100eko 50eko hobaria izateko eskubidea dute, behin betiko kalifikazioa izan ondorengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesatuak eskaturik emango da. Hobari hori hiru zergaldiak bukatu aurretik ordaindu ahal izango da, eta, hala badagokio, eskaria egin eta hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak. Udalak informazio zabala eskaini behar du hobari horien gainean bere webgunearen, udal informazioko aldizkariaren eta eskueran dituen bestelako komunikazio bideen bitartez.

Hiru zergaldi horiek igaro ondoren, babes ofizialeko etxebizitzek zergaren kuota duten 100eko 50eko hobaria hamabi zergaldi gehiagora luzatuko da, indarreko hamabost zergalditara heldu arte. Hamabi aldiko luzapen hori ez zaie aplikatuko ordenantza hau onartu ondoren behin betiko kalifikazioa lortzen duten etxebizitzek, alde batera utzi gabe kasu zehatz bakoitzean horri buruz artikulatu daitekeena.

Etxebizitza sozialen kasuan, hiru zergaldiko epea amaitutakoan, hobaria 100eko 75ekoa izango da hurrengo hamabi zergaldietan.

Hamabi zergaldi luzapen hori ez zaie aplikatuko ordenantza hau onartu ondoren behin betiko kalifikazioa lortzen duten etxebizitzek, alde batera utzi gabe kasu zehatz bakoitzean horri buruz artikulatu daitekeena.

Babes ofizialeko etxebizitzetako eta etxebizitza sozialetako hobari horiek, ordenantza hau onartu ondoren behin betiko kalifikazioa lortzen duten etxebizitzetarako, aurreko paragrafoa aplikatuz erabaki daitekeenaren arabera, aplikatuko dira baldin eta batzuek eta besteek aldi horretan jatorrizko kalifikazioari eusten badiote eta jabe esleipendunek familiaren gehieneko errenta gainditzen ez badute, hau da, familiaren zerga-oinarriaren (zerga-oinarri orokorra gehi aurrezkiaren zerga-oinarria) eta familiaren kuota likidoaren arteko aldea gainditzen ez badute. Hona hemen:

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ETA ETXEBIZITZA SOZIALEN HOBARIETARAKO ERRENTA

KIDE KOPURUA	GEHIENENKO ERRENTA
1 eta 2	26.482,45 euro
3	28.783,64 euro
4	30.724,13 euro



5	32.291,43 euro
6	33.547,76 euro
7	34.804,09 euro
8	36.047,98 euro
9	39.652,78 euro
10	43.618,05 euro
11	47.979,85 euro
12	52.777,85 euro

Familia-unitateko kideen kopuruan sartzen dira gurasoak edo tutoreak eta emantzipatu gabeko seme-alaba adingabeak. Familiako kideek PFEZaren aitoren indibiduala aukeratzen badute, familiako kideen oinarri eta kuota indibidualen baturak osatuko ditu zerga-oinarria eta kuota likidoa.

Hobari hori aplikatuko zaie, zerga-legeriak zehaztutako moduan, jabearen edo esleipendunaren ohiko bizilekua diren etxebizitzetara.

Administrazioak egiaztatzen badu hobaridun ondasunen titularrak beste etxebizitza batzuen titularrak direla edo ez dutela betetzen familiaren gehieneko errentaren baldintza, baliatutako hobaria baliogabetu egingo da.

4. Nekazaritzako kooperatiben eta ustiapen komunitarioko kooperatiben landa-ondasunek zergaren kuotan 100eko 50eko hobaria izateko eskubidea izango dute, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko Foru Arauaren 26. artikulua arabera

5. Familia ugarietarako hobariak

Familia ugarien ohiko bizilekua diren etxebizitzetara, familia-errenta estandarizatuaren eta Espainiako lanbide arteko gutxieneko soldataren arabera hobaria izango dute zergaren kuotan.

Familia-errenta estandarizatua	Hobaria
LGS baino 2 aldiz handiagoa edo berdina	Ehuneko 90
2 LGS baino handiagoa eta 2,5 baino txikiagoa edo berdina	Ehuneko 50
2,5 LGS baino handiagoa eta 2,75 LGS baino txikiagoa edo berdina	Ehuneko 10

Hobari hori baliatzea bateragarria da babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritakoekin, betiere bi onura fiskalen baturak kuotaren ehuneko 100 gainditzen ez badu.

Zergaren subjektu pasiboek, hobari-eskabidearekin batera, familia ugaria eta familiaren errenta-maila egiaztatzen duten agiri ofizialak aurkeztu beharko dituzte.

Familia-errenta estandarizatua zehazteko, familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren 3., 4., 5. eta 6. artikuluetan araututakoa hartuko da kontuan.

Hobari-eskaera aurtengo lehen seihilekoan aurkeztu beharko da. Hobaria aplikatzen den ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean familia ugaria izan beharko dute, eta indarrean dagoen tituluaren bidez egiaztatuta beharko dute.



6. Hobari subjetoak.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 15. artikulua dionaren arabera, honako hobari hauek finkatzen dira:

a.- Etxebizitza osoaren edo haren zati baten gaineko eskubide baten titular diren eta II. ERANSKINEKO taulan agertzen diren baldintzak betetzen dituzten zerga honen subjektu pasiboek, bertan adierazten diren ehunekoetan, izango dute hobaria zergaren kuotan, ondorengo zenbakietan adierazten diren baldintzetan ezartzen denaren arabera.

b.- Hobaria zergaren kuota osoari aplikatuko zaio, bertan bizi diren ondasun osoaren edo zati baten gaineko eskubide baten titularren familia-unitateen diru-sarreraren arabera, eta eranskinean jasotako taularen arabera.

c.- Hobariak etxebizitza-erabilera duen higiezin bakarria duten familia-unitateei baino ez zaizkie aplikatuko, baldin eta, gainera, beren ohiko bizilekua bada zerga-legedian zehaztutako baldintzetan.

d.- Hobariaren zenbatekoa eranskinean adierazitakoa izango da.

Eranskineko taulan aipatzen diren errenta-tarteak eta ehunekoak eskubide baten titular diren familia-unitateetako kide guztien errentak bertan bizi diren etxebizitza osoaren edo zati baten gainean integratuz aplikatuko dira. Horretarako:

- Errentagatik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 69. artikuluan aipatzen den konpentsazio-pentsioen eta elikagaiengatik urtekoen murrizketan murriztutako zerga-oinarria. Ondorio horietarako, paragrafo honetan aipatzen den hobaria aplikatuko den aldiaren aurreko bigarren urtean lortutako errentak hartuko dira kontuan.

- Aurreko lerrokan aipatzen den errenta zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoriozko datuak hartuko dira kontuan, eta, autolikidazioa aurkeztu beharrik ez badago, autolikidazioa egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein informazio.

- Familia-unitateetat hartuko da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehaztutakoa.

e.- Zergaren subjektu pasiboek hobari hori ematea eskatu beharko dute, ematen den inprimakia aurkeztuz eta familia-unitatearen errenta-maila justifikatzen duten agiriak erantsiz. Nolanahi ere, Udalak, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, justifikazio hori erraztu ahal izango du, ahal den neurrian hobari horren izapidetzea erraztuz.

f.- Hobari hori bateraezina izango da 16. artikuluan honetan araututako gainerako hobariekin.

g.- Hobari hori aplikatzeko, beti bete beharko da ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen foru-arauak hobari hori buruz egiten duen legezko aurreikuspena.

7.- Hobariak Eraikinen Energia Ziurtagiriaren arabera

a. Zerga honen subjektu pasiboek ohiko etxebizitzarako ondasun higiezinak, A motako



eraginkortasun energetikoaren etiketa badute, ehuneko 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, eta ehuneko 25ekoa B motakoek.

b. Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duen apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak arautzen du ziurtagiri energetikoa lortzea.

c. Hobari horiek baliatzeko epea hiru urtekoa da.

d. Hobari hori bateraezina izango da artikulua honetan araututako gainerako hobariekin.

8. Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak araututako Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren eta foru edo udal etxebizitzaren plan eta programen esparruan lagatako ondasun higiezinak % 50eko hobaria izango dute kuota osoan.

9. Aurreko lerroketan berariaz salbuetsi ez bada, artikulua honetan jasotako hobariak aldi berean aplikatu ahal izango zaizkio subjektu pasibo berari, hala badagokio.

10. Zergaren kuotaren ehuneko 25eko hobaria ezartzen da sistema fotovoltaiakoak auzoko erkidegoetan edo udalerrian instalatutako energia-komunitateei lotutako higiezinetan jartzeagatik, instalazioa amaitu eta hurrengo 3 zergaldietan. Erkidego hori osatzen duten etxebizitzetako bakoitzari aplikatuko zaio. Hobari hori bateraezina da artikulua honetan araututako gainerako hobariekin.

Hobari hau erregutua da. Hobariaren iraupena amaitu aurreko edozein unetan eska daiteke, eta, hala badagokio, eskatu eta hurrengo zergaldian izango du eragina. Beraz, ez du atzeraeraginik izango. Hobari hau aplikatzeko baldintza izango da eguzki-instalazioa ez dela nahitaezkoa izan behar araudiaren arabera.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Higiezinaren jabeak dagokion ziurtagiriaren edo dokumentuaren bidez egiaztatu beharko du sistema fotovoltaiakoa instalatu duen auzo-erkidegoko edo energia-komunitateko kide dela.
- Administrazio eskudunaren homologazioa egiaztatzen duen agiria.

11. Hobari-eskaerak dagokien ekitaldiaren barruan egin behar dira.

12. Artikulua honetan eta ordenantza honetako II. eranskinean jasotako hobariak aplikatzeko, eskatzaileek, eta familia ugarien kasuan, kide guztiek, ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean Aguraingo Udalean premiamendu-espedienteetan sartuta dauden zorrak ordaindu gabe ez izatea ezinbestekoa izango da, salbu eta bertan behera edo geroratuta badaude.

16 bis artikulua

Aurreko artikuluan ezarritako aukerako hobariak ez zaizkie aplikatuko 100.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten familia-unitateei.

VIII. ERREKARGUAK



17. artikulua

1. Errentamenduaren edo erabileragapenaren bidez, subjektu pasiboaren edo hirugarren pertsonen bizilekua ez diren bizitegi-erabilerako ondasun higiezinak, zergaren kuota likidoaren ehuneko 50eko errenergua izango dute.

2. Errenergua hori ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboari eskatuko zaie, eta urtero sortu eta likidatuko da, zerga horren kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilerako higiezin bat okupatzailearen edo okupatzaileen bizilekutzat hartuko da, baldin eta ondasun higiezinaren gaineko zergaren sortzapen-datan hala jasota badago kokatuta dagoen udalerriko errodan.

Errenergua hau aplikatzeko, etxebizitzaren eranskinak hartuko dira kontuan, baldin eta harekin batera errengiro-finka bakarri osatzen badute eta beste erabileragapen edo jardueragapen baterako erabiltzen ez badira.

3. Zergadunak aldeaz aurretik eskatuz gero, ez da errenergua aplikatuko honako kasu hauetan:

a. Administrazio publikoaren eta haien erakunde instrumentalen jabetzakoak diren bizitegi-erabileragapen ondasun higiezinak, alokairu eskuragarriko etxebizitzaren eskaintza publikoan sartuta daudenak edo hirugarrenek haiei lagatakoak, etxebizitza librearen alokairu-merkatuan bitartekaritza-programa publikoak gauzatzeko, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsen Programa.

b. Udal-lizentzia duten ostalaritza- eta ostatu-jarduerari atxikitako etxebizitzak, bai eta erabileragapen turistiko etxebizitzak eta erabileragapen turistiko logelak ere.

c. Jardueragapen profesional edo komertzialetara bideratutako etxebizitzak, modu jarraituan, udal-lizentzia dutenak.

d. Azken urtean zehar titularra hil zaien ondasunak.

e. Aurre-erregiro deklaratu diren edo deklaratzeko izapideak hasi dituzten etxebizitzak.

f. Zergaren sortzapen-daten aurreko urteko azaroan eta abenduan eskualdatutako ondasunak.

g. Errentan emandako etxebizitzarako higiezinak. Alokairua bizitegi-erabilerarako izango da, errentamendu-kontratua eskatuko da eta horren berri emango zaio Foru Ogasunari. Alegatutako alokairuak gutxienez 9 hilabeteko iraupena izan behar du errenergua aplikatzen ari den urtearen aurreko ekitaldi fiskalean.

h. Ohiko etxebizitza izan gabe, urtean gutxienez 300 kWh-ko argi-kontsumoa edo 9 hilabetetan bizitegi-erabilerarako 30 metro kubiko ur-kontsumoa egiaztatzen duten etxebizitzak.

i. Fisikoki elkartutako ondasun higiezinak, baina errengiroan bi finka eratzen dituztenak eta bi ordainagiri desberdin dituztenak. Ondasunen titularra pertsona bera izan behar da.



j. Jaraunspena osatzen duten etxebizitzak, titularra hiltzen denetik 2 urteko epean. Salbuespen hori aplikatzeko, beharrezkoa da jarauspene-ekriturak edo beharrezko dokumentazioa aurkeztea, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren aitortzea aurkezteko legeak ezarritako epean.

k. Hirugarren adinekoen egoitzetan erroldatutako pertsonen dagozkien etxebizitzak. Salbuespen hori bizilekua sartu aurretik egoiliarren ohiko etxebizitza zen etxebizitzari bakarrik aplikatuko zaio. Salbuespena urtebetekoa izango da, egoitzan erroldatzen den egunetik aurrera.

l. Zergaren sortzapen-datan obra handiko eraberritzearen xede diren higiezinak. Hori egiaztatzeko, udalaren obra-lizentzia aurkeztu beharko da.

ll. Mendekotasuna duen senide baten etxean erroldatuta dauden pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak, senide hori zaintzeko, eta hori agiri bidez egiaztatu beharko da. Salbuespena urtebetekoa izango da, mendetasun-egoeran dagoen senitartekoa etxebizitzan erroldatzen den egunetik aurrera.

m. Egoera bereziki ahulean edo arrisku-egoeran dauden beste pertsona batzuk zaintzeko edo artatzeko prozesuetan dauden pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak, baldin eta pertsona titularra etxebizitzan bizi ez dela justifikatzen badute. Hori agiri bidez egiaztatu beharko da.

IX. SORTZAPENAK

18. artikulua.

1.- Zerga urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortzen da, eta zergaldia bat dator urte naturalekoarekin.

2.- Zergapetutako ondasunetan sortutako aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoek, aldaketa horiek gertatu ondorengo zergaldian izango dituzte ondorioak. Dagozkion administrazio egintzak jakinarazteak ez ditu ondorio horiek baldintzatuko.

3.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, honako hauek hartuko dira ondasun higieziinei dagozkien aldaketatzat:

a) Fisikoki: eraikuntza berriak egitea eta lehendik zeudenak zabaltzea, eraistea edo eraistea, partzialki edo osorik. Ez dira aldaketatzat hartuko eraikinen kontserbazio eta mantentze hutsa helburu duten obrak edo konponketak, nahiz eta aldizkakoak ez izan, ezta apaindura- edo dekorazio-ezaugarriei soilik eragiten dietenak ere.

Era berean, aldaketa fisikotzat jotzen dira landa-ondasun higieziaren laboreen edo aprobetxamenduen aldaketak.

b) Ekonomikoak: higieziaren erabilera eta erabilera aldatzea, baldin eta aldaketa fisikorik ez badakarte.

c) Izaera juridikokoak: Ordenantza honetako 3. artikuluan jasotako edozein eskubideren



titularitatea eskualdatzea edo eratzea, ondasun higiezinak bereiztea edo zatitzea eta elkartzea.

Titulartasuna eskualdatzearen edo gozamen-eskubide errealak, azalera-eskubideak eta administrazio-emakidak eratzearen ondoriozko aldaketa juridikoetan, ez da jakinarazpenik egin behar, baldin eta aldaketa horiek gauzatzeko interesdunak aurkeztutako edozein aitorpenetan aurkeztutako agiriak bakarrik hartzen badira kontuan.

19. artikulua.

1.- Zerga gai diren eskubideen jabetzan, edozein arrazoi dela-eta, aldaketaren bat gertatu bada, eskubide horien jabe diren ondasun higiezinengatik zerga kuota guztia ordaindu beharko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak xedatutakoaren arabera. Horiek horrela, notarioek argibideak eskatuko dituzte, eta agertzen direnei berariaz jakinaraziko diete zein den eskualdatzen den higiezinari lotutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokion zorrak ordaintzeko epea, zein epetan aurkeztu behar duten zergari buruzko aitorpena, eta, halaber, zein erantzukizun duten aitorpena aurkezten ez badute, edo aitorpen hori epez kanpo edo erdipurdika aurkezten badute, edo gezurra esaten badute.

2.- Zerga zorraren ordainketaren erantzule solidario izango dira, nor bere partearen arabera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikularen 3. paragrafoan xedatutako erakundeetako titularkideak eta partaideak, baldin eta higiezinaren katastroan hala agertzen badira inskribatuta. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da, hala ere".

X. ZERGAREN KUDEAKETA

20. artikulua.

Zerga urtero egingo den erroldaren bidez kudeatuko da, non ondasun higiezinak, subjektu pasiboak eta katastro balioak (landa eta hiri ondasunak bereiz) barne hartzen dituen erroldak jasoko baitira. Errolda hori udaletxean egongo da jendaurrean.

21. artikulua.

1. Subjektu pasiboak zergapetzen diren ondasunei dagozkien altak eta aldaketak Udalean aitortzera behartuta daude.

Adierazpena bi hilabeteko epean aurkeztuko da. Epe hori aitorpena aurkezteko betebeharra sortu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen, "mortis causa" eskualdatzeetan izan ezik, horietan epea Oinordetzen gaineko Zerga likidatzen den egunetik aurrera zenbatuko baita.

2. Hauek izango dira aurkeztu beharreko adierazpenak:

a) Eraikuntza berrien kasuan, dagozkien alta emate aitorpenak egin beharko dituzte.

b) Zerga honi lotutako ondasunak eskualdatzen badira, eskuratzaileak alta aitorpena aurkeztu beharko du eskualdaketa eragin duen dokumentuarekin batera; eskualdatzaileak, aldiz, baja aitorpena aurkeztu beharko du, honakoak adieraziz: eskuratzailearen izena eta



helbidea, ondasunen mugak eta kokapena, eskualdaketa data eta aitortzen hori zer dela eta egiten den.

c) Eskualdaketa "mortis causa" egintzaren batek eragiten badu, oinordekoak alta eta baja aitortzen egin beharko ditu.

d) Udalak duen ereduaren aurkeztu beharreko adierazpenekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Eskualdatzaileen eta eskuratzailen NAN/IFZ.
- 2.- Aldaketa eragin duen agiriaren kopia.
- 3.- Eskualdatzen diren higiezin katastro-erreferentziaren ziurtagiria.

22. artikulua.

Katastroa berrikusi, katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatu, ikuskatzaileak bere egitekoak burutu edo alta eman eta komunikazioak formalizatu izanaren ondorioz Higiezin Katastroetan datuak sartzeari, bertan jasotako datuak ezabatzea edo bestelako aldaketak administrazio egintzatzat joko dira eta zerga eroldaren aldaketa ekarriko dute. Ildo beretik, eroldan higiezin katastroetan dauden datuekin lotutako aldaketarik egin behar izanez gero, higiezin katastroetan alde aurretik aldaketa bera egin beharko da nahitaez.

23. artikulua.

1.- Udalak du zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmena, borondatezko epealdian zein premiamendu aldirian, baldin eta zergapeko ondasunak bere udalerrian badaude, baina hori ez da eragozpen izango 3. paragrafoan ezarritakoa betetzeko.

2.- Zehazki, udalei dagokie alta emate eta baja emateen izapideak egitea eta likidatzea, eroldak jendaurrean jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, foru arau honetan araupetutako salbuespenak eta hobariak ematen edo ukatzen direnean, udal eskudunak ematen duen ebazpena foru aldundiari helarazi beharko zaio.

3.- Arabako Foru Aldundiari ez besteri dagokio lurzorua mugaketak eta balio txostenak egin eta onartzea, baita mugaketa horiek eta katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea ere; era berean, katastroei eta zerga eroldari dagozkien prestakuntza, berrikuspena, kontserbazioa eta gainerako funtzioak ere berari dagozkio.

Udalek katastroa prestatzen eta kontserbatzen lagunduko diote foru aldundiari.

Era berean, foru aldundiari dagokio ordainagiriak egitea. Udalek foru arau honen 15. artikuluan 7. eta 9. paragrafoetan aipatzen diren hobari pertsonalak ezartzen badituzte, eta foru arau horren beraren 14. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan aurreikusitako kasuetan ere bai, udalek egin beharko dituzte ordainagiriak. Era berean, foru aldundiari dagokio zergaren katastro ikuskapena egitea".

24. artikulua.



Balio txostenak onartzen dituzten egintzen aurka eta katastro balioen aurka zerga ordenantza honen 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera errekursoak eta erreklamazioak aurkezteko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 229-246. artikuluetan xedatutakoari jarraitu beharko zaio. Arabako Foru aldundiak izango du eskumena berraztertzeke errekurtsua ebazteko. Dena den, aipatutako errekurtsu eta erreklamazioak aurkezteak ez du egintzen betearazpena eragotziko.

25. artikulua.

- 1.- Arabako Foru Aldundiak errolda egin eta Udalari bidaliko dio.
- 2.- Udalak errolda jaso eta gero, jendaurrean jarriko du 15 eguneko epean, zergadunek azter dezaten eta, hala badagokio, egokitzeak jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.
- 3.- Udalerria baino txikiagoa den lurralde eremua daukaten udalek eremu horietako lehendakariak jakinaraziko diete iragarkia noiz jarriko den jendaurrean, bi egun lehenago gutxienez, haiek beren auzokideei jakinaraz diezaieten ohiko bideen bitartez.

26. artikulua.

- 1.- Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, foru aldundiari emaitzaren egiaztatzea bidaliko zaio, hark onar dezan.
- 2.- Egiaztatzea onartu eta gero, foru aldundiak dagozkion ordainagiriak egingo ditu, eta udalari bidaliko dizkio, hark diru bilketari ekin diezaioten.

27. artikulua.

Kapitulu honetan xedatutakoa – Zergaren kudeaketa – Udalak eta Arabako Foru Aldundiak kudeaketa, likidazio, ikuskapen, bilketa eta zerga honekin lotutako beste edozein alderdiri buruz sina ditzaketen hitzarmenei kalterik egin gabe ulertuko da.

28. artikulua.

Ondasun higiezin bat edo horren gaineko eskubide bat bi titular edo gehiagorena denean, dagokion kuotaren zati bakoitzari dagokion zatikia ordaintzeko eskatu ahal izango da, eta ezinbestekoa izango da ordaintzera behartuta dauden guztien datu pertsonalak eta helbideak aurkeztea, artikulua honetan ezarritako baldintzen arabera, betiere legeztatuak aitortutako erantzukizun solidarioari kalterik egin gabe.

Prozedura hori aplikatzeko, zergapeko egitatearen titular guztien adostasuna behar da.

Kuotaren zatien ordainketak kontu-zenbaki baten bidez egingo dira, eta kontu-zenbaki hori aurkeztu beharko da zatiki bakoitza ordaintzeko. Banku-kontu guztiak aurkezten ez badira, zergapeko egitatearen titular guztientzat tributu-kuota zatikitzen zatitzea ezetsiko da.

Kuotaren zatitan ordaintzeko eskaera onartzeko, zatikatutako kuota bakoitzaren gutxieneko zenbatekoa 9 eurotik gorakoa izan beharko da, eta ondasun higiezinaren zerga-oinarria 60.000 eurotik gorakoa.



XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.

5 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako eta 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz estatu espainiarrak eta Vatikanoak egindako akordioak indarrean dirauen bitartean, honako ondasunak salbuetsiko dira:

- a) Gurtzeko erabilitako tenplu eta kaperak, bai eta jarduera pastoralera zuzendutako lokalak edo horiei atxikitako eraikinak ere.
- b) Gotzain, kalonje eta arimen ardura duten apaizen egoitza.
- c) Bulego, Kuria diozesiar eta parrokia bulegoetarako erabilitako lokalak.
- d) Elizbarrutiko kleroaren eta erlijiosoaren prestakuntzara zuzendutako apaiztegiak; elizaren unibertsitateak ere bai, elizaren berezko gaiak irakasten dituzten heinean.
- e) Beren helburu nagusia ordenetako, erlijio kongregazioetako eta bizitza sagaratuko institutu etxe edo komentu izatea duten eraikinak.

Bigarrena.

Katastro-balioak finkatu, berrikusi edo aldatzen diren udalerrietan, eta ez aldi berean, kasuan kasuko udalek, Foru Arauaren 14. artikuluan adierazitako moduan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga-tasak ezarri ahal izango dituzte, katastro-balio berriak dituzten ondasunen arabera bereizita.

Hiri-unitateen kopurua 750.000 baino handiagoa den udalerrietan, baldin eta horien katastro-balioak urteka finkatu, berrikusi edo aldatzen badira, Udalbatzak erabaki ahal izango du katastro-balio berrien eraginkortasuna udalerrri osorako aldi berean egitea, azken fasearen ondoriozko balioak jakinarazteko prozesua amaitu eta hurrengo urtean.

Faseka egindako berrikuspenak ez du inola ere hiru urte baino gehiagoko iraupena izango. Udal-erabakia lehenengo fasea amaitzen den urteko lehen seihilekoan hartu beharko da, eta aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, balio berriek eragina zein egunetan izan behar duten adierazi beharko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauko xedapen gehigarrietan jasotako arauak aplikagarri izango dira udalerrian, eragiten dion guztirako.

AZKEN XEDAPENA



Ordenantza hau, bere eranskinarekin batera, behin betiko onartu zen eranskinean agertzen den egunean, eta ALHAOn argitaratu ondoren jarriko da indarrean eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. ERANSKINA

Orokorrean, karga-tasa ehuneko 0,376 izango da hiri-ondasunetan. Salpuespen gisa, ehuneko 0,541eko tasa bereizia aplikatuko da erantsitako taulan adierazitako erabilerei.

Katastroko araudian definitutako erabileren arabera, hiri-ondasunei aplikatu beharreko karga-tasa zehazteko, ondasun higiezin sailkapen hau ezartzen da, eta gutxieneko katastro-balioa zehazten da, gehitutako tasa zein erabileratik aurrera aplikatuko den zehazteko.

Tasa hori 2. taldeko (industria) eta 4. taldeko (merkataritza) balio handiena duten hiri-ondasun higiezin ehuneko 10ari soilik aplikatuko zaio, erantsitako taula honen arabera:

TAULA ERANTSIA

ERABILERA	KODEA	GUTXIENEO KATASTRO BALIOA
Industrial	2	219.841,79 €
Komertziala	4	93.475,33 €

Higiezin erabilera bat baino gehiago badituzte esleituta, eraikin-erabilerari edo gela nagusiari dagokion tasa aplikatuko da.

Ondasun higiezin bakoitzaren erabilera Higiezin Katastroak urtero ematen duen katastro-eroldan jasotzen da. Katastroaren deskribapena eta identifikazio-kodea aurreko taulan daude jasota, bai eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 51/2014 Foru Dekretua ere, hiri-izaerako ondasun higiezin katastro-balioa zehazteko lurzoruen eta eraikuntzen balioak baloratzeko arau teknikoak eta esparru-koadroa onartzen dituen.

Erabilerak identifikatzeko, aurretik zehaztu ez den guztian, katastro-balorazioaren arloan ezartzen diren arauak beteko dira.

Landa-ondasunen karga-tasa ehuneko 0,340koa izango da.

Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higieziinei aplikatu beharreko karga-tasa ehuneko 1,3koa izango da.

ZERGA BILTZEKO ALDIA: Udalak Ondasun Higiezin gaineke Zerga bi zatitan bilduko du, eta zati bakoitza ordaindu beharreko kuotaren ehuneko 50 izango da. Lehenengo zatia ekainean bilduko da, eta bigarrena, berriz, urte bakoitzeko azaroan.

II. ERANSKINA



Hobariak izateko eskubidea izango dute taula honetako baldintzak betetzen dituzten zergadunek, bertan adierazten den moduan:

	T-0	T-1	T-2	T-3
Familia unitateko kideak	12.000 € baino errenta txikiagoa	12.001 €-tik LGSra (16.576 €ra)	LGSdik 1,5xLGSra bitarteko errenta (16.577 €-tik 24.864 €-ra)	1,5xLGSdik gorako errenta, 2xLGS arte (24.865 €-tik 33.152 €-ra)
1 - 2	% 90	% 75	% 35	% 0
3	% 95	% 90	% 50	% 25
4	% 95	% 90	% 75	% 50
5 edo gehiago	% 95	% 95	% 85	% 75

“Familia-unitatetzat hartuko da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehaztutakoa”.

Hobaria baliatzeko baldintza eta izapide formalak.

- Hobariaren xede den higiezina identifikatzeko eskabidea.
- Familia-unitateko kide guztien zerga-onuraren aurreko urteko PFEZaren fotokopia konpultsatua edo hura egiteko obligaziorik ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Eskabideak aurkezteko epea 6 hilabetekoa izango da, urte bakoitzeko otsail-uztaila aldian, eta ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko izapidetuko da.

Hobari hori bateraezina izango da 16. artikuluan honetan jasotako gainerako hobariekin.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala, Eranskin honetan jasotako tarifa eta bilketa-aldia zati direla, behin betiko onartu zen, azken aldaketaren ondoren, 2025eko abenduaren 5ean.

**ORDENANTZA 2. ZK****AGURAINGO UDALA****ARABAKO LURRALDEA****JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA
ORDENANTZA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua.**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eskatuko du udalak ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak eta ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua.

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGA GAIA**3. artikulua.**

Enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea udalerrian izango da zerga gaia, jarduera horiek lokal jakin batean egin edo ez egin eta zergaren tarifetan zehaztuak egon edo ez egon.

Zerga honen ondorioetarako, enpresa-jardueratzat hartuko dira abeltzaintzakoak, izaera independentea dutenean, meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzuetakoak. Beraz, ez dira halakotzat hartzen nekazaritza-jarduerak, mendeko abeltzaintza-jarduerak, baso-jarduerak eta arrantza-jarduerak, eta ez dira zergapeko egitate.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, segidako kasuotan sartuta dagoen abere multzoa abeltzaintza independentetzat joko da:

- a) Abeltzainak nekazaritzarako edo baso-ustiapenerako erabiltzen ez dituen lurretan batez ere bazkatzen duten abereak.
- b) Landa finketatik kanpo ukuiluratutakoak.
- c) Transhumantea edo trasterminantea.
- d) Hazleku dituzten finketakoak ez diren pentsuez gehienbat elikatzen direnak.

4. artikulua.

1.- Jarduera batek enpresa, lanbide edo arte izaera izango du produkzio bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietakoren bat) bere kontura antolatzen ditunean, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmoz.

2.- Zergapetutako jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

**5. artikulua.**

Zergapetutako jarduerak egiten direla frogatzeko, zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan jasotakoak.

6. artikulua.

Ez da zerga gaia izango honako jarduera hauek egitea:

1.- Nekazaritzakoak, mendeko abeltzaintzakoak, basogintzakoak eta arrantzakoak.

2.- Enpresen aktibo finkoan sartzen diren ondasunak besterentzea, ondasun horiek ibilgetu izaeraz gutxienez aldatu baino bi urte lehenagotik agertu badira inbentarioan, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, ondasun horiek denbora epe berean erabili izan baditu.

3.- Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuak saltzea.

4.- Establezimenduak dekoratu eta apaintzeko baino ez diren gaiak erakustea. Aldiz, zergari lotuko zaio bezeroei oparitzeko gauzak erakustea.

5.-Txikizkako salmentan, egintza bakarra burutzea eta eragiketa bakana izatea.

III. SALBUESPENAK**7. artikulua.**

1.- Zergatik salbuetsita daude:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Zerga honen lehenengo bi zergaldietan jarduera bati ekiten dioten subjektu pasiboak. Honen ondorioetarako, ondoko kasuetan jarduera ez dela hasi pentsatuko da:

- 1) Lehenago beste titulartasun batekin egin bada jarduera; halakotzat hartuko dira bategiteak, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.
- 2) Subjektu pasiboa Merkataritzako Kodeko 42. artikuluekin bat etorritik eratutako sozietate talde bateko kidea bada; salbu eta jarduera berri bat bada, taldeko ezein enpresak lehenago egin ez duena.
- 3) Erakundearen ehuneko 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku badago.

c) Eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, baldin eta eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena badute.

Nolanahi ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek



zuzenean edo zeharka ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik ez izatea idatz-zati honetan aurreikusitako eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen artean, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 77. artikuluan aipatzen diren arrisku-kapitaleko sozietate edo funtsen kasuan, partaidetza azken horien helburu soziala betetzearen ondorio denean.

Idatz zati honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko arau hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketen bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 5. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da.
2. Eragiketen bolumena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, zerga horien aitorpenak aurkezteko epea zerga hau sortu aurreko urtea amaitua duen zergaldiko eragiketa-bolumena izango da.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. paragrafoan aipatzen diren sozietate zibilen eta erakundeen kasuan, eragiketa-bolumena zerga hau sortu aurreko azken-aurreko urteari dagokiona izango da.

Zergaldi horrek urte naturala baino iraupen laburragoa izan badu, eragiketen bolumena urtebeterra luzatuko da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketa-bolumena kalkulatzeko, subjektu pasiboak gauzatutako jardura ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea sozietate-talde bateko kide denean, Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera, arestian adierazitako magnitudeak talde horretako erakunde guztiei buruzkoak izango dira, urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra alde batera utzita.

4. Ez-egoiliarren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, Espainiako lurraldean kokatutako establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakikeen eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte Segurantzza, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorri eratutakoak.

e) Ikerketa-erakunde publikoak, irakaskuntza-establezimenduek, beren gradu guztietan, Estatuko, autonomia-erkidegoetako, Arabako Foru Aldundiko edo toki-erakundeetako funtsekin osorik ordainduta, edo ongintzazkotzat edo onura publikokotzat jotako fundazioek ordainduta, eta irakaskuntza-establezimenduek, maila guztietan, baldin eta, irabazi-asmorik gabe, hezkuntza-itunaren araubidean badaude, baita ikasleei liburuak edo mahaigaineko artikulua ematen badizkiete edo pentsio ertaineko edo barnetegiko zerbitzuak ematen badizkiete ere, eta nahiz eta salbuespen gisa establezimendu berean saltzen dituzten irakaskuntza horretarako tailerretako produktuak, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, partikular edo hirugarren pertsona batentzat inolako baliagarritasunik gabe, lehengaiak eskuratzeko edo establezimenduari eusteko soilik erabiltzen bada.



f) Ezindu fisiko, psikiko eta sentsozialen elkarte eta fundazioek, irabazteko asmorik gabeek, ezinduak irakatsi, hezi, birgaitu eta zaintzeko burutzen dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerak direla eta, nahiz eta horretara egokitutako tailerretako produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eksklusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

g) Gurutze Gorriaren eta arauz zehaztuko diren antzeko erakundeen ondasunak.

h) Salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboak, nazioarteko itunei edo hitzarmenei jarraikiz.

2. Aurreko paragrafoaren a), e), eta h) idatz zatietan zehaztutako subjektu pasiboek ez dute Zergaren matrikulako alta aitortpena aurkezteko beharrik.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak zehaztuko du zein kasutan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari zuzendutako komunikazio bat, 1. paragrafoaren c) letran zehaztutako salbuespena aplikatzean; komunikazio horretan, ziurtatu egin beharko da salbuespena aplikatzeko letra horretan eskatzen diren baldintzak betetzen direla.

Ondorio horietarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezarriko ditu komunikazio horren edukia, epea eta aurkezpen modua, baita bide telematikoz aurkeztu beharko diren kasuak ere.

Artikulu honen 1. paragrafoaren c) letran zehaztutako salbuespenari eragin diezaioketen aldakuntzez ari garela, zerga ordenantza honetako 11. artikulua 2. paragrafoko hirugarren lehenaldian zehaztutakoa jarraituko da.

4. Artikulu honen 1. paragrafoaren f) eta g) idatz zatietan xedatutako salbuespenek erregu izaera izango dute eta, hala dagokionean, alde batek eskatuta emango dira.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

8. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. paragrafoak aipatzen dituen erakundeak, udalerrian zerga gaia eratzen duten jardueretako edozein egiten badute.

9. artikulua.

Zerga kuota indarrean dauden zergaren tarifak (uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartuak) aplikatuta lortzen dena izango da, betiere ondokoak kontuan hartuta: udalak adostutako eta ordenantza honen eranskinean araututako koefizienteak, indizea eta hobariak.

V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

10. artikulua.



1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta aitortpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, zergaldiaren jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da. Horrek ez du eragotziko artikuluko honen 3. paragrafoan xedatutakoa ezartzea.

2.- Zerga sortuko da zergaldiaren lehen egunean eta kuotak murriztezinak izango dira, salbu eta alta-aitortpenen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31ra bitarteko egun kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da.

3.- Baja aitortpenen kasuetan, zergaldia urtarilaren batetik baja aitortpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga, eta kuota proportzionalki kalkulatu da, hau da, urtarilaren batetik baja aitortpenaren egunera arte dauden hileen arabera.

Aurreko lerroaldean aipatutako hilabeteen kopurua kalkulatzeko, baja aitortpena aurkezten den hilabete osoa baliatzen bezala zenbatuko da.

Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatu, baldin eta ez badira igaro 12 hilabete jarduera hasten den egunetik baja aitortpena egiten den eguna arte. Horrelakoetan, baja aitortpena aurkezten den urteko abenduaren 31ra pasatuko da baja eguna.

4.- Ikuskizunei dagokienez, kuotak saio bakanen arabera ezarritakoak direnean, sortzapena saio bakoitzeko sortuko da, eta egoki diren aitortpenak aurkeztu beharko dira arauak ezarritakoa erari jarraiki.

VI. KUDEAKETA

11. artikulua.

1.- Zerga matrikularen arabera kudeatzen da. Matrikula hori urtero osatuko da, eta jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak, zerga-zorrak eta, hala badagokio, foru-errekargua biltzen dituzten erroldak osatuko dute. Matrikula jendearen eskura egongo da.

2.- Subjektu pasiboek dagozkien alta aitortpen guztiak aurkeztu behar dituzte, eta zerga ordenantza honetako 11.1 artikuluari jarraikiz, erroldan sartzeko beharrezko diren elementu guztiak adierazi beharko dituzte, arauz ezartzen den epean. Jarraian, eskumena duen administrazioak dagokion likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, eta horrek, dagokion diru sarrera egin beharko du. Halaber, subjektu pasiboek zergapetutako jarduerak gauzatzean sortuko diren eta zerga honen ondorioetarako garrantzia izango duten aldaketa fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak jakinarazi beharko dituzte arau bidez ezarriko diren epe eta terminoetan. Horiek horrela, jakinarazpen horietan nahitaez adierazi beharko da jarduerak gauzatzen diren higiezin katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honen 7. artikularen 1. paragrafoaren c) idatz zatian zehaztutako salbuespena aplikatu ezin zaien zergadunek eragiketa bolumena adierazi beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, subjektu pasiboek eragiketa bolumenean izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin aldakuntza horrek berarekin badakar zerga ordenantza honen 7. artikularen 1. paragrafoaren c) idatz zatian zehaztutako salbuespena aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa, nahiz zerga ordenantza honetako eranskinean



zehaztutako haztapen koefizientea aplikatzearen ondorioetarako kontuan izan beharreko zatiko aldaketa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezarriko ditu komunikazio horiek aurkeztu behar diren kasuak, haien edukia, epea eta aurkezteko modua, bai eta bide telematikoz noiz aurkeztu behar diren ere.

3.- Zerga-ikuskaritzaren jarduketan edo altak eta komunikazioak formalizatzearen ondorioz zentsuetan jasotako datuak sartzea, baztertzea edo aldatzea administrazio-egintzat hartuko da, eta zentsua aldatzea ekarriko du. Erroldako datuei buruzko edozein matrikula-aldaketa egiteko, ezinbestekoa izango da erroldako datuak aldatzea.

4.- Zerga hau autolikidazioaren bidez egiteko eskatu ahal izango da, arauz ezartzen diren baldintzetan.

12. artikulua.

1.- Udal honek ditu kudeaketa, likidazio, ikuskatze eta bilketa ahalmenak, bai araututako epean, bai premiamendu bidean.

2.- Bere eskumeneko gaitan, honako hauek dagozkio: matrikula jendaurrean jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zergadunari zerga honen gaiei buruzko informazioa emateko jarduerak.

3.- Arabako Foru Aldundiari bakarrik dagokio matrikula osatu eta gordetzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea, kuotak zehaztea eta dagozkion kobrantza-ordainagiriak egitea.

4.- Udal hau Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan arituko da zergaren matrikula osatu eta kontserbatzeko, bai eta jarduera ekonomikoak kalifikatzeko eta dagozkion kuotak zehazteko ere.

5.- Salbuespenak eta hobariak emateko edo ukatzeko, foru aldundiari eman beharko zaio hartutako erabakiaren berri.

13. artikulua.

Jardueren kalifikazioen eta kuoten zehaztapenaren aurka aurkeztutako errekurso eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 229. artikulutik 246. artikulura bitartekoetan xedatutakoari jarraiki arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da errekursoa ebazteko organo eskuduna. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazpena eragotziko.

14. artikulua.

1.- Udal bakoitzari dagozkion matrikulak foru aldundiak egingo ditu eta ondoren haiei bidaliko dizkie.

2.- Foru Aldundiak egindako matrikula jasotako bat jendaurrean jarriko da hamabost eguneko epean, eragindako zergadunek aztertu eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

15. artikulua.



Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztageria, hark onar dezan.

Onartu eta gero, Arabako Foru Aldundiak egingo ditu bakoitzari dagozkion ordainagiriak, eta udalari bidaliko dizkio, azken horrek diru-bilketari ekin diezaion.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboei dagokienez, uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onartutako tarifen lehen ohar komunean Bigarren Atalari lehen oharrean araututako jarduera hasteagatiko kuotan hobaria aplikatzen ari badira, hobari hori aplikatzen jarraituko da, ohar erkide horretan aurreikusitako baldintzetan, hobaria aplikatzeko dagokion aldia amaitu arte.

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ERANSKINA

Lehen araua.

Udalaren gutxieneko zerga kuota, indarrean dagoen uztailaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren 573/1991 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Zergaren Tarifak – Ordenantza honetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura osatzen eta garatzen duten xedapenetan jasotako manuen arabera – eta Ordenantza Fiskal honetan araututako koefiziente, indize eta hobariak Zergapeko Egitatean sartutako jardueri aplikatzearen emaitza izango da.

Bigarren araua. Eragiketa bolumenaren arabera zehaztutako haztapen koefizientea

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 9.1 artikulua kontuan hartuta, Aguraingo Udalak ez du igoko zergaren tarifetan adierazitako gutxieneko udal kuota, subjektu pasiboen eragiketa bolumenaren arabera haztapen koefizienteren bat aplikatuta.

Hirugarren araua

Foru Arauaren 9.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, udalerrri horretan egiten diren jarduera guztietarako, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen gutxieneko kuotak igo egingo dira, jarduera horiei 2,1 koefizientea aplikatuz.

Laugarren araua. Indizeak

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 10. artikulua kontuan hartuta, Aguraingo Udalak ez du indizerik ezartzen subjektu pasiboak jarduera ekonomikoa egiten duen bide publikoaren kategoria fiskalaren arabera.

Bosgarren araua. Hobariak.



Foru Arauaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, zergaren kuotan hobaria aplikatuko dira, eta subjektu pasibo beraren alde batera aplika daitezke. Hona hobari horiek:

1. Kooperatiba babestuek, hala eskatzen badute, ondoren adieraziko diren ehunekoak izango dituzte hobari zergaren kuotan, Arabako Foru Aldundiak horren aldeko txostena egiten duen bakoitzean:
 - Zerga kuotaren ehuneko 50eko hobaria, lehen urtean.
 - Zerga kuotaren ehuneko 75eko hobaria, bigarren urtean.
 - Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria, hirugarren eta azken urtean.
2. Udal kuotako zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboek ehuneko 10eko hobaria izango dute, baldin eta hobaria aplikatzeko den zergaldiaren aurre-aurreko zergaldian kontratu mugagabeko langileen batez bestekoa ehuneko 10ean handitu badute, zergaldi haren aurrekoaren aldean.

Enplegua sortzeagatik hobari hori ehuneko 25ekoa izango da, aurreko lerroaldean aipatutako batez bestekoaren igoera ehuneko 20 edo handiagoa denean.
3. Dagokion kuotaren 100eko 10eko hobaria izango dute zergak udal-kuotagatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboek, baldin eta beren langileentzat garraio-plan bat ezartzen badute, eta plan horren helburua honako hau bada: energiaren kontsumoa eta lanpostura joateak eragindako emisioak murriztea eta garraiobide eraginkorragoen erabilera sustatzea, hala nola garraio kolektiboa edo partekatua.

Seigarren araua.

Diru-bilketako aldia: ordainketa bakarra egingo da, irailean.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala, zeinaren zati baita Eranskin hau, azken aldaketaren ondoren, behin betiko onartu zen 2025eko abenduaren 5ean, eta ALHAOn argitaratu ondoren sartu zen indarrean.

**ORDENANTZA 3. ZK****AGURAINGO UDALA****ARABAKO LURRALDEA****TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN
DUEN ZERGA ORDENANTZA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. Artikulua.**

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko Foru Arau Partikularrean aurreikusitakoarekin bat etorriz, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga exijitzen du Ordenantza aurrekoaren arabera, eta horren zati da aplikatu beharreko tarifen taula jasotzen duen Eranskina.

2. Artikulua.

Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGA GAIA**3. Artikulua.**

1.- Zerga honen zerga gai izango da bide publikoan ibiltzeko gai diren eta trakzio mekanikoa duten ibilgailuen titularitatea, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honi dagokionean.

2.- Zirkulaziorako ibilgailu egokia da dagokion erregistro publikoetan matrikulatu den eta horietan bazarik eman ez duen ibilgailua. Zerga honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira aldi baterako baimena eta matrikula turistikoa duten ibilgailuak.

3.- Honako hauei ez zaie ezarriko zerga hau:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuei, nahiz eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatueta ibiltzeko baimena izan.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastatutako atoi eta erdi atoei, baldin eta haien karga erabilgarria 750 kilografo baino gehiagokoa ez bada.



III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. Artikulua.

1. Honakoek ez dute zerga ordaindu beharrik izango:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta kontsulatuaren ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuetak funtzionario kreditatuak, haiek dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuak kanpotik identifikatuta egon beharko dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari bai neurriari dagokionez ere.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, baita bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorren II. eranskinaren A letarak aipatzen dituen mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, baldin eta ezinduen izenean matrikulatuta badaude.

Era berean, zergaren ordainketatik salbuetsiko dira 14 zerga zaldi duten eta elbarrien izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hori egoerak dirauen bitartean bakarrik aplikatuko da, bai dibertsitate funtzionala dutenek gidatutako ibilgailuen kasuan bai elbarriak eramateko ibilgailuen kasuan.

Aurreko bi leroaldeetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikagarri izango onuradun diren subjektu pasiboek ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Hizki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, dibertsitate funtzionala duten pertsonak izango dira:

A) Ehuneko 33ko edo gehiagoko eta ehuneko 65 baino gutxiagoko desgaitasun-maila aitortuta duten pertsonak, baldin eta mugikortasun murriztua badute; hau da, urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak, desgaitasun-maila aitortu, eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenak, Mugikortasun Jardueretako Mugen azpi-baremoan (BLAM) % 25eko edo hortik gorako mugikortasun-muga lortu izana.

B) Ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan aipatzen diren eta mugikortasun murriztua duten pertsonak ez zaie 14 zaldi fiskaleko muga aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago, baldin eta mugikortasun murriztua izateko egoeran badaude, eta Mugikortasun Jardueren Mugak izeneko azpi-baremoan (BLAM), urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan, desgaitasun-maila aitortzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenean, ehuneko 75eko edo hortik gorako mugikortasun-muga lortzen badute.



f) Autobusak, mikrobusak eta hiriko garraio publikoari zuzendutako edo atxikitako gainontzeko ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako Ikuskatze Txartela duten traktore, atoi, erdi atoi eta makinak.

2. Artikulu honetako 1. idatz zatiko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenez gozatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobariaren arrazoia adierazi beharko dituzte. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Aurreko 1 artikuluko e) hizkiko bigarren paragrafoan jasotako salbuespena dela eta, interesdunak desgaitasun-maila eta, hala behar izanez gero, mugikortasun murriztuko gabezia egoeraren egiaztatzea aurkeztu beharko du, kasuan kasuko organoak emana. Halaber, justifikatu egin beharko du ibilgailuaren destinoa ezarpen udalean, dagokion zerga ordenantzak finkatutakoaren arabera.

2011ko urtarrilaren 1a baino lehen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita zeuden ibilgailuek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren 2.1.e) artikuluen aurreko idazketa aplikatuta, salbuespena eskatu beharko dute berriz ere, baldin eta aldeztu aurretik dagokion Udalean egiaztatu ez badute foru arau honek aipatutako artikuluari emandako idazketa berrian jasotako baldintzak betetzen dituztela.

3. Zergaren kuotaren gaineko 100eko 90eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek edo gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna dutenak, fabrikazio-datatik zenbatzen hasita, edo, hori ezagutzen ez bada, lehen matrikulazioaren data hartuko da halakotzat, edo, halakorik ezean, dagokion mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion data. Hobari hori eskuratzeko, baimena eskatu beharko dute interesdunek, ibilgailuaren ezaugarriak adierazita.

4. Zergaren kuotaren gaineko % 15eko hobaria izango dute bost plaza edo gehiagoko ibilgailu turistiko bakar baten alde, baldin eta ibilgailu horrek 15,99 zaldi fiskal baino gutxiago baditu eta indarreko legeriaren arabera ugaritzat jotzen den familiako kideren baten titulartasunpekoak badira.

Hobari hori eskuratzeko, interesdunek baimena eskatu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak adierazita eta familia ugariaren liburua aurkeztuta.

5. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren laugarren artikuluko 6.b. idatz-zatian jasotako aukerari jarraiki, % 25eko hobaria ezartzen da % 100 elektrikoa eta hibrido entxufagarria duten ibilgailu motordunentzat, eta % 15eko hobaria entxufatu ezin diren ibilgailu hibridoentzat.

Entxufatu daitezkeen ibilgailu hibridoek dagokien % 25eko hobaria eta entxufatu ezin diren ibilgailu hibridoek dagokien % 15eko hobaria lehenengo hiru urteetan aplikatuko dira.



IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. Artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. paragrafoak aipatzen dituen erakundeak, zirkulazio baimenean ibilgailua haien izenean edukiz gero.

V. KUOTA

6. Artikulua.

1.- Eranskinean jasotzen den tarifa-taularen arabera eskatuko da zerga. Taula horrek 1,91ko koefizientea ematen die Arabako Foru Aldundiak onartutako gutxieneko tarifei.

2.- Ibilgailu-mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; horretaz gain, honako arauok ere kontuan izan beharko dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da turismo-ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen denean, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modeloa funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoei dagozkien zergak ordainduko dituzte, honakoetan izan ezik:

Lehenena.- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusari dagokion zerga ordainduko du.

Bigarrena.- Ibilgailua 525 kilogramoko zama erabilgarria baino gehiago eramateko baimenduta badago, kamioiari dagokion zerga ordainduko du.

b) Zerga honen ondorioetarako, moto-gurdiak motozikleten pareko izango dira, eta, beraz, zilindrada edukieraren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, arrastatze-potentzia daramanak eta atoi eta erdi-atoi arrastatuek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotore, atoi eta erdi atoi kasuan, duten edukiera dela eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako egokitutako joko dira dagokion egiaztagiria Industria Ordezkaritzak ematen duen une beretik, edo, hala badagokio, zirkulatzen hasten direnetik.

e) Bide publikoetatik trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek eraman edo arrastatu beharrik gabe ibil daitezkeen makina autopropulsatuek traktoreei dagozkien tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Betiere, Tarifen D) letran azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan, traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak" ere sartzen dira.



g) Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuaren 11.20 artikuluan testu beraren V. eranskinarekin loturik xedatutakoaren arabera finkatuko da. Dekretu horren bidez onartu zen Ibilgailuen Araudi Orokorra.

VI. EZARPENALDIA ETA SORTZAPENA

7. Artikulua.

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, ibilgailuen lehen eskuratze edo baja kasuan salbu. Horrelakoetan, zergaldia eskuratze hori gertatzean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan baja ematean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zerga zergaldiaren lehen egunean sortuko da.

3.- Ibilgailuaren bat lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko eskuratze-egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan, edo ibilgailuaren baja ematen den egunaren arteko aldiari dagokiona, hala badagokio.

4.- Ibilgailuaren baja ematen denean, urtarilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan ibilgailuaren baja ematen den egunera bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan zergaren kuota kalkulatzeko.

VII. KUDEAKETA

8. Artikulua.

Kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, eta, halaber, zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea, ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko Udalari dagokio.

9. Artikulua.

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. Artikulua.

Udal administrazioak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztatgia.

11. Artikulua.

Zerga ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilekoan ordainduko da, ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12. Artikulua.

Matrikulazio berririk bada, edo, zergen ondorioetarako, ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen bestelako aldaketarik bada, matrikulazioaren edo aldaketaren ondoren 30 egun balioduneko



epean, interesdunek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte Udal Administrazioan, Zergaren matrikulan sartzeko:

- a) Gidabaimena.
- b) Ezaugarri teknikoen egiaztagiria.
- c) NAN/IFZ.

13. Artikulua.

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa, gidatzeko gaitasun egiaztagiria, eskatzen dutenek aurretik zerga ordaindu dutela kreditatu beharko dute.
2. Ibilgailuen titularrek, Trafikoko Buruzagitzari ibilgailuen eraberritzearen berri ematen diotenean, zerga honen ondorioetarako sailkapena aldatzen badute, bai eta transferentzien kasuan, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den helbide-aldaketaren kasuan edo ibilgailu horien bajaren kasuan ere, zerga kobratzeko aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu dutela egiaztatu beharko diote aldez aurretik Trafikoko Buruzagitzari, alde batera utzi gabe kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak kudeaketa eta ikuskapen bidez ordaintzea eska daitekeela. Hamabost urte edo gehiagoko antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ez dira egiaztatu beharko.
3. Trafiko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko, aldez aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita geratzen diren ibilgailuek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren 2.1.d) artikuluaurreko idazkera aplikatzearen ondorioz, foru arau honek manu horri emandako idazketa berrian salbuespenerako ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, manu horren aurreko idazketan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko eskubidea izaten jarraituko dute, ibilgailuak arau horretan salbuespen horretarako ezarritako baldintzei eusten dien bitartean.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen azken aldaketa, bere eranskinarekin, behin betiko onartu zen 2025eko abenduaren 5ean, eta ALHAOn argitaratu ondoren sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

**ERANSKINA****TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA**

Potentzia eta ibilgailu mota	Agurain Tarifak 2026	
a) Turismoak		
8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	25,07	euro
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	67,7	euro
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	142,91	euro
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	178	euro
20 zaldi fiskal baino gehiagokoak	232,25	euro
b) Autobusak		
21 plaza baino gutxiagokoak	165,48	euro
21-50 plaza	235,66	euro
50 plaza baino gehiagokoak	294,58	euro
c) Kamioiak		
1.000 kilogramo baino gutxiagoko karga erabilgarria	83,99	euro
1.000 eta 2.999 kilogramo arteko karga erabilgarria	165,48	euro
2.999 eta 9.999 kilogramo arteko karga erabilgarria	235,66	euro
9.999 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria	294,58	euro
d) Traktoreak		
16 zaldi baino gutxiagokoak	35,09	euro
16-25 zaldi fiskal	55,16	euro
25 zaldi fiskal baino gehiago	165,48	euro
e) Atoiak eta erdi-atoiak		
750 eta 1.000 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria	35,09	euro
1.000 eta 2.999 kilogramo arteko karga erabilgarria	55,16	euro
2.999 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria	165,48	euro
f) Beste ibilgailu batzuk		
Motor-bizikleta	8,78	euro
125 zentimetro kubiko arteko motorrak	8,78	euro
125 eta 250 zentimetro kubiko arteko motozikletak	15,03	euro
250 eta 500 zentimetro kubiko arteko motozikletak	20,09	euro
500 eta 1.000 zentimetro kubiko arteko motozikletak	60,18	euro
1.000 zentimetro kubiko baino gehiagoko motozikletak	120,36	euro

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala 2025eko abenduaren 5ean onartu zen behin betiko, azken aldaketa egin ondoren, eta ALHAOn argitaratu ondoren sartu zen indarrean.

**ORDENANTZA 4. ZK****AGURAINGO UDALA ARABAKO LURRALDEA****ERAIKUNTZA LANEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN ZERGA ARAUTZEN
DUEN ORDENANTZA****I.- XEDAPEN OROKORRAK****1. Artikulua.**

Udalak ordenantza honen arabera eskatuko du Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauan eta zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. Artikulua.

Ordenantza hau udalerri osoan ezarriko da.

II.- ZERGA GAIA**3. Artikulua.**

Honakoek osatuko dute zerga gaia: obra edo hirigintza baimena lortu beharra duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baimen hori lortu ala ez, baldin eta udal honi badagokio aipatutako baimena ematea.

4. Artikulua.

Adibide gisa, hona hemen zerga gai diren zenbait egitate:

1. Oin berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obrak.
2. Lehendik dagoen edozein eraikin edo instalazio handitzeko obrak.
3. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalaziori eragiten dioten eraberritze edo aldaketa obrak.
4. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazioaren kanpoko aldea aldatzeko obrak.
5. Eraikinen barruko antolaketa aldatuko duten obrak, ematen zaion erabilera edozein dela ere.
6. Behin-behineko izaeraz egitekoak diren obrak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 36. eta 37. artikuluetan aipatzen direnak.
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.



8. Lur mugimenduak; esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, baldin eta egintza horiek ez badaude zehaztuta eta programatuta urbanizazio edo eraikuntza proiektu onartu edo baimendu batean egikaritu beharreko obra gisa.

9. Eraikuntzen eraispena, berehalako aurriaren adierazpena egin dutenetan izan ezik.

10. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.

11. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa ekarriko dutenak eta obra edo hirigintza baimena lortu beharra dutenak.

12. Bide publikotik ikus daitezkeen propaganda kartelak ezartzea.

5. Artikulua.

Higiezinaren gainean egindako eraikuntza, obra eta instalazioei ez zaie zerga hau ezarriko, haien jabari titulartasuna udalarena bada, eta udala bera bada obren jabea.

III.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.

1. Honakoek ez dute zerga ordaindu beharrik izango:

a) Zergari lotuta egon arren, eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak estatua, autonomia erkidegoak, lurralde historikoak edo toki erakundeak badira, ez zaie ezarriko zergarik, baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin uren saneamenduak egiteko badira, nahiz eta organismo autonomoek kudeatu, eta berdin inbertsio berriko obrak direnean zein mantentzekoak direnean.

b) Eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak badira ez zaie zerga ezarriko, haren helburua zerbitzu edo erabilera publikoa denean.

c) Ureztaketa ezartzeko helburua duten eraikuntza, instalazio eta obrak, baldin eta Arabako Foru Aldundiak onartutako Ureztatze Planaren barruan badaude. Horrelakoak ezartzeko helburua duten eraikuntza, instalazio eta obrei zein mantentzeko helburua dutenei dagokie salbuespena.

d) Ondoko hauetan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea:

- 1.- Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikulua
2. apartatuaren a) letraren arabera monumentu izendapena duten higiezinak. Salbuespen hau babes berezi eta ertaineko kultura ondasun deklaratzeko diren ondasun higieziari aplikatuko zaie, baldin eta maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak zehazten dituen baldintzak betetzen badira.



2.- Era berean, salbuetsita egongo dira Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikularen 2. apartatuaren b letran aipatutako monumentu-multzo bateko ondasun higiezinak. Salbuespen hori kultura-ondasun deklaratzaren ondoren higiezinak bakarrik aplikatuko zaie, baldin eta aipatutako 6/2019 Legeak zehazten dituen baldintzak betetzen badituzte eta babes bereziko araubidearen barruan badaude.

2. Hobariak zerga kuotan:

- a) Hobari bat ezartzen da, historia, arte, gizarte eta kultura inguruabarrak tarteko, udal interes edo erabilera bereziko deklaraturik dauden eraikuntza, instalazio eta obrentzat. Hobari horren muin eta forma alderdiak nola arautu ordenantza honen eranskinean zehazten da.

Bizitegi-erabilera eta merkataritza-erabilera ondasun higiezinetan egindako obren aldeko hobaria ezartzen da.

1. % 95ekoa, eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak dituztenetan. Hobaria aplikatzeko baldintza izango da beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntza-sistemak eta ur beroak izatea.
2. % 95ekoa, eraikinen birgaitze integrala helburu dutenetan, birgaitze energetikoa eta irisgarritasuna barne. Horretarako, energia-birgaitetarako A edo B motako energia-efizientziaren etiketa lortzea izan behar du helburu.
3. % 60ekoa, udalerriko auzo edo zonetan energia berriztagarriak sartzeko birgaitze integraleko proiektuen esparruan egiten direnetan.

Hiru kasu horietako edozeinetan, hobaria eguzki-energia aprobetxatzeko sistemetara bideratutako kopuruei bakarrik aplikatuko zaie, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera inbertsioa nahitaezkoa ez bada.

Idatz-zati honetan aurreikusitako hobaria aurreko a) letran aipatutako hobaria aplikatuz ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

- b) 100eko 90eko hobaria ezartzen da eraikuntza, instalazio eta obren alde (besteak beste, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzei atxikitako igogailuak instalatzea), baldin eta lehendik dauden eraikuntzetan pertsonak sartzeko eta bizitzeko baldintzak errazten badituzte. Idatz-zati honetan aurreikusitako hobaria aurreko a) eta b) idatz-zatietan aipatutako hobariak aplikatuz ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.
- c) Zergaren kuota 100eko 50eko hobaria ezartzen da Hirigune Historikoan edo inguruko auzo finkatuetan hotelak, ostatuak, nekazalturismoak edo antzekoak sortzeko eraikuntzen, instalazioen eta eraikinak birgaitzeko obren alde.
- d) Merkataritza txikirako eta antzekoetarako merkataritza-lokalak birgaitzeko obren kasuan, zerga-tasa %1ekoa izango da, betiere erakunde eskudunaren txostena positiboa bada.



- e) Dagokion kuotaren ehuneko 50eko hobaria ezartzen da udal-kuotaren arabera zergak ordaindu eta EJSN 4779 (bigarren eskuko merkataritza) jardura garatzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta jardura horren xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotuta badago.
- f) Ehuneko 99rainoko hobaria ezartzen da zerbitzu edo erabilera publikorako diren eraikuntza, instalazio edo obretarako, baldin eta kuadrilla gisa eratutako Arabako lurralde-erakundearen jabetzakoak badira

IV.- SUBJEKTU PASIBOAK

7. Artikulua.

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Zergari buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. paragrafoan jasotako pertsona fisikoak, juridikoak eta erakundeak, baldin eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe badira; berdin dio obra egiten den ondasun higiezinaren jabe diren edo ez.

Aurreko paragrafoan araututakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua ordaintzen duena.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordeko subjektu pasibotzat joko dira horietarako baimenak eskatu dituztenak edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak.

Ordezkoak zergadunari eskatu ahalko dio ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

V.- ZERGA OINARRIA

8. Artikulua.

1. Zergaren oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta egiazkoek osatuko dute; ondorio horietarako, gauzatze materialaren kostua jotzen da benetako kostutzat.

Ez dute zerga oinarria osatzen Balio Erantsiaren gaineko Zergak eta erregimen berezien berezko beste antzeko zergek, eta eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasek, prezio publikoek eta ondare prestazioek, publikoak eta tokian tokikoak direnean, ez eta profesionalen soldatek, kontratistaren enpresa etekinak, eta gauzatze materialaren kostua zorrotz osatzen ez duen beste edozein kontzeptuk ere.

VI.- ZERGA KUOTA

9. Artikulua.

Zerga oinarriari eranskinean zehaztutako karga tasa aplikatuz lortuko da zerga honi dagokion kuota.



VII.- SORTZAPENA

10. artikulua.

Eraikuntza, instalazioa eta obra hasten den momentuan sortuko da zerga, dagokion obraren baimena artean lortu ez bada ere.

VIII.- KUDEAKETA

11. Artikulua.

Aginduzko lizentzia lortzen denean, behin-behineko likidazioa egingo da. Zerga oinarria zehazteko, interesdunek aurkeztutako aurrekontua erabiliko da, dagokion elkargoak behar bezala ikus-onetsia; bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zein den zerga oinarria, proiekturako kalkulatzeko den kostuaren arabera.

12. Artikulua.

Lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, hasierako aurrekontua gainditzen duen aurrekontu aldatuaren arabera behin-behineko beste likidazio bat egin ahal izateko.

13. Artikulua.

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak ikusita, eta horien kostu erreala kontuan hartuta, udalak dagokion egiaztapena egingo du, eta, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatuko du. Horren arabera, behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatuko dio, edo, hala badagokio, itzuli ere bai.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo behin-behinekoa jaso eta hurrengo hilabeteetan, horren deklarazioa aurkeztu beharko da udal administrazioak emandako inprimakian. Horrekin batera obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztuko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, ahal denean; bertan, obraren kostu osoa ziurtatuko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria onura eta hortik sortutako beste eskubide batzuk barne.

14. Artikulua.

Zergaren likidaziorako ondorio berak izango dituzte bai administrazio isiltasun positiboa aplikatuz emandako baimenek bai beren beregi emandako baimenek.

15. Artikulua.

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

16. Artikulua.

Lizentzia baten titullarrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du.

**17. Artikulua.**

Lizentzia bat iraungitakoan, egindako likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du udalak, salbu eta titularrak hura berritzeko eskatu eta udalak baimena ematen badio.

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA FISKALA**

ERANSKINA

1. APLIKATU BEHARREKO TARIFA

- Proiektu teknikorekin egin beharreko obrak	exekuzio materialaren aurrekontuaren ehuneko 4,5.
- Proiektuaren beharrik gabe egiteko obrak:	exekuzio materialaren aurrekontuaren ehuneko 3,5.
- Gutxieneko tarifa	6,50 euro obrako.

2. INGURUABAR SOZIALAK DIRELA-ETA INTERES BEREZIKOTZAT EDO UDAL ONURAKOTZAT JOTZEN DIREN ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ALDEKO HOBARIK.

% 95eko hobaria ezartzen da administrazioek edo erakunde publikoek sustatutako alokairu-erregimeneko babes publikoko eraikuntzetan, besteak beste, inguruabar sozialak direla-eta interes berezikotzat edo udal-onurakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio eta obretarako.

Udalak, interesdunak aldeztu aurretik eskatuta, interes edo onura publiko berezia aitortuko du, hala badagokio, osoko bilkuraren erabakiz.

3. HOBARIK, HISTORIA ETA ARTE KULTURA INGURUABARRAK TARTEKO, UDAL INTERES EDO ERABILERA BEREZIKO DEKLARATUTA DAUDEN ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBRENTZAT.

Eraikinen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 4.3.a) artikulua aitortzen dion ahalmenaren babesean, Aguraingo Udalak hirigune historikoko etxebizitzak birgaitzeko eraikuntza, instalazio eta obretarako hobariak emango ditu, haien zaintza sustatu eta beraiek hobetze aldera, honako baldintza hauen arabera:

Xedapen orokorrak

1. Dirulaguntzak emateko arau hauek hartuko dira aintzat:

o Borondatezkoak eta aldi batekoak izango dira, eranskin honetan xedatzen denean izan ezik.



- o Ezingo dira aldarrikatu aurrekari gisa.
 - o Ezingo da eskatu hobaria handitzerik edo berrikusterik.
2. Hobari honen aplikazio-eremua Aguraingo udalerriko hirigune historikoan dauden eraikinen birgaitzea da, erabilera nagusia eskatzailearen etxebizitza bada eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:
- o Proposatzen den erabilerarako mugarik ez izatea, ez eta hirigintza antolamendutik kanpoko egotea ere.
 - o Ez zaie hobaririk emango sustatzaile edo eraikitzaileei egoztekoak diren akatsek eragindako obrei.
 - o Birgaitu eta gero, hobaria izan duen etxebizitza eskatzailearen ohiko etxebizitza bihurtu beharko da.
 - o Obraren aurrekontua 300,50 euro baino gehiago izango da.
3. Birgaitze obrak dira eraikin baten egitura egokitasuna eta etxebizitza baten bizigarritasuna lortzeko egiten direnak, Hara:
- o Eraikinaren egitura egokitzea (oinarriak, zutabeak, habeak, estalkiak, fatxadak finkatzea, eskailerak sendotzea, estalkietako erreteiak).
 - o Fatxadak eta beste elementu komun batzuk birgaitzea (akaberak, iragazkaiztasuna, pintura, ateburuak, leiho isurkiak, ataria, eskailerak).
 - o Instalazioak egokitzea, betiere eraikinen elementu komunak badira, berokuntzarenak salbu (konponketak, birjartzeak, eta hauen instalazio berriak: ur hotza eta beroa, saneamenduak, elektrizitate eta telebista instalazio komunak, aireztatze eta haizebide instalazioak).
 - o Eraikinetako instalazioak eta isolamenduak konpontzea, berritzea eta jartzea.
 - o Nahitaez egin beharreko obrak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 203. artikulua babesean sortutako administrazio espedienteetatik eratorritako exekuzio aginduen ondoriozkoak.
4. Birgaitzeko lan guztietan bermatu egin behar da eraikinaren egoerarekiko eta egin behar diren gainerako obrekiko koherentzia tekniko eta osagarria. Eraikin batean egiturazko eta eraikuntzazko segurtasun baldintzarik ez bada, elektrizitaterik eta urik ez badu, ez eta saneamendu orokorreko sarrerik ere, ez da hobaririk emango obrentzat, obretan horiek guztiak jartzen ez badira.

Eskatzaileak

1. Eraikinen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga dela eta hobaria eskatu ahal izango dute, hirigune historikoan etxeak birgaitzeko, eskaera aurkeztu aurretik Aguraingo udalerrian erroldatuta gutxienez bi urte daramatzaten pertsona fisikoak, baldin eta etxearen jabe badira eta etxe hori ohiko etxebizitza bada.
2. Eskatzaileek ezin izango dute administrazio publikoarekin zorretan egon, ez zerga betebeharretan, ez kanonetan, ez kuotetan.



Zenbatekoa

Hau izango da hobariaren zenbatekoa:

- Obren exekuzio materialaren ehuneko 2,25, aurrekontuak 30.050,61 eurotik beherakoak badira.
- Obren exekuzio materialaren ehuneko 2,70, aurrekontuak 30.050,61 eurotik gorakoak badira.

Kudeaketa eta izapideak

1. Hobaria jasotzeko, eskatzaileak eta eraikinak eranskin honetan ezartzen diren baldintzak egiaztatzea beharrezkoa izango da.
2. Eskerak egiteko epea betiere birgaitzeko obrak amaitu aurrekoa izango da.
3. Eskerak agiri hauekin osatuko dira:
 - Alkateari zuzendutako eskabidea, bertan nortasun datuak, eraikinaren kokalekua, obra mota, aurrekontua eta obra gauzatzeko epea adierazten direla.
 - Jabetzaren eskritura edo horren kopia kautotua, eta zerga zorrik ez duela aitortzea, horrek obrak egitea eta hobaria jasotzea galaraziko lukeelako.
 - Obraren aurrekontua, obra egin behar duen kontratistak edo industrialak egina. Fakultatibo batek esku hartzea derrigorrezkoa bada, proiektu teknikoa aurkeztu beharko da.
 - Birgaitu beharreko etxebizitzaren edo etxebizitzaren edozein tituluren bidez okupatzaileek baimena ematea, hobaria eskatzen duen jabeaz bestelako pertsonak direnean.
 - Mota guztietako zerga betebeharrak, kanon eta kuotetan egunean egotearen ziurtagiria, bai udal honekin eta bai Arabako Foru Aldundiarekin.
4. Udaleko zerbitzu juridiko eta teknikoek eskaeren gaineko txostena egingo dute, obraren egokitasunari, balorazioari eta ordenantza honetan ezartzen dena betetzeari dagokienez, eta eskumena duen organoak ebatziko ditu.
5. Birgaitze edo eraikuntza lanak amaitu ondoren jasoko da hobaria, fakultatiboak edo lana egin duen pertsonak izenpetutako obra egiaztatzea aurkeztu ondoren, edo faktura aurkeztuta, udal teknikariaren proiekturik edo baloraziorik behar ez denean. Edonola ere, udal teknikariak txosten bat egingo du indarrean dagoen hirigintzako legeriarekin bat datorren adieraziz.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza, Eranskin honetan jasotako Tarifa eta Hobariak barne hartzen dituena, behin betiko onartu zen 2025eko abenduaren 5ean, eta ALHAOn argitaratu ondoren sartu zen indarrean.

**ORDENANTZA 8. ZK****AGURAINGO UDALA****ARABAKO LURRALDEA****ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO
JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK
ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik, tasak ezarri eta galdatzen ditu eranskinean jasotzen diren zerbitzuak eman eta jarduerak burutzeagatik, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera. Ordenantza hau osatzen dutenak dira tasak.

2. artikulua

Ordenantza udal lurralde eremu osoan aplikatzen da.

II. ZERGA GAIA**3. artikulua**

Udalak benetan zerbitzua ematea edo jarduera egitea izango da zerga gaia, zerbitzu hori gizabanakoek zuzenean eskatu dutelako, edo gizabanako horiek egin dituzten edo egin ez dituzten jardueren ondorioz zeharka sortua izan delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA**4. artikulua**

1.- Subjektu pasiboak edo zergak ordaintzen dituzten subjektuak pertsona fisiko eta juridikoak zein Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikulua aipatzen dituen entitateak dira, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenean eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen dutenean.

2.- Hurrengoak zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Etxebizitzen edo lokalen erabiltzaileentzat onuragarriak edo eragingarriak diren zerbitzuengatik edo jarduerengatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak zenbait kasutan, dagokien onuradunei ordainarazi ahal dizkiete tasa horiek.



b) Suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak, aurrien prebentziokoak, eraikuntzakoak eta eraistekoak, salbamendukoak eta, oro har, pertsonak eta ondasunak babestekoak emateagatik ezarritako tasetan, barnean hartuta zerbitzua mantentzea, arriskua aseguratzen duten erakundeak edo sozietateak.

c) Tasak lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutako hirigintza-baimenak emateagatik ordaindu behar badira, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hurrengoek ordaindu beharko dituzte tasak.

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatu badituzte, eskatu duenak.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakiokiena.

6. artikulua

Subjektu pasiboarekin batera, Ordenantza honetatik eratorzen diren zerga-zorren erantzukizuna tarifik aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak ematea aplikatu beharreko xedapen orokorren menpe egongo da beti.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga-oinarria, eranskinak diotenaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua

Zerga kuota izango da, eranskinean ezarritakoaren arabera, tarifa bat, horretarako adierazitako kopuru finko bat edo bi prozedurak batera aplikatzearen ondoriozko kopurua aplikatzearen emaitza.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

**10. artikulua**

1.- Tasa zerbitzua ematen edo jarduera egiten denean sortuko da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**11. artikulua**

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

12. artikulua

Ordenantza honek arautzen dituen tasen likidazioari, bilketari eta ikuskapenari dagokienez, bai eta zerga arloko arau-hausteen kalifikazioari eta kasu bakoitzari dagozkion zehapenen zehaztapenari dagokienez ere, Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta eranskina 2025eko abenduaren 5ean onartu ziren behin betiko, eta ALHAOn argitaratzen denetik aurrera sartuko dira indarrean, eta indarrean jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

**ZERBITZU PUBLIKOENGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERENGATIK KOBRATU
BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

ERANSKINA

**A) EPIGRAFEA. HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIK KOBRATU
BEHARREKO TASA.**

TARIFAK 2026		
	2026	Hiruhileko tarifa
Etxebizitzak	114,59 euros	28,65 erors
Janari dendak	218,74 euros	54,68 euros
Enpresak, 5 langile baino gutxiagokoak	171,62 euros	42,91 euros
Gizarte eta kultura jardueretan erabiliko diren lokalak	329,51 euros	82,38 euros
Tabernak eta antzekoak	553,97 euros	138,49 euros



Landa-turismoko eta/edo nekazaritza-turismoko etxeak	440,23 euros	110,06 euros
Hotelak eta jatetxeak	740,54 euros	185,14 euros
350 metro karratu baino gutxiago duten supermerkatuak	553,97 euros	138,49 euros
350 metro karratu baino gehiago duten supermerkatuak	677,30 euros	169,33 euros
Enpresak (5 eta 20 langile bitartean)	464,31 euros	116,08 euros
Enpresak (21 eta 50 langile bitartean)	528,02 euros	132,01 euros
50 langile baino gehiagoko enpresak	786,95 euros	196,74 euros
Bulegoak eta merkataritzarako lokalak, oro har	168,23 euros	42,06 euros
Lonjak, merkataritzako jarduera izapidetu gabe	22,95 euros	5,74 euros
Garaje plazak	2,73 euros	0,68 euros

HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUAGATIKO TASAREN HOBARIAK:

Tasaren kuotan hobariak jasotzeko eskubidea izango dute hurrengo taulan agertzen diren baldintzak betetzen dituzten zergadunek, taulan agertzen diren ehunekoetan.

	T-0	T-1	T-2	T-3
Familia-unitateko kideen kopurua	12.000 eurotik beherako errenta	12.001 eurotik LGSra (16.576 euro)	LGStik gorako errenta 1,5 x LGSra arte (16.577 eurotik 24.864 eurora)	1,5 x LGStik gorako errenta, 2 x LGSra arte (24.865 eurotik 33.152 eurora)
1 - 2	% 90	% 75	% 35	% 0
3	% 95	% 90	% 50	% 25
4	% 95	% 90	% 75	% 50
5 edo gehiago	% 95	% 95	% 85	% 75

“Familia-unitatetzat hartuko da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehaztutakoa”.

Aurrekoa gorabehera, zerga ordaintzen den egunean erreferentziako etxebizitzan familia-unitatea osatzen duten pertsonak baino gehiago erroldatu badira, ondorio horietarako, etxebizitzan erroldatutako pertsona guztiak familia-unitateko kide direla ulertuko da, eta, beraz, pertsona horien guztien diru-sarrerak zenbatuko dira.

Hobaria baliatzeko baldintza eta izapide formalak.

- Hobariaren xede den higiezina identifikatzeko eskabidea.
- Familia-unitateko kide guztien zerga-onuraren aurreko urteko PFEZaren fotokopia konpultsatua edo hura egiteko obligaziorik ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Eskabideak aurkezteko epea 6 hilabetekoa izango da, urte bakoitzeko otsail-uztaila aldian, eta ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko izapidetuko da.



C) EPIGRAFEA. UDALEKO LANGILEEKIN ETA MATERIALAREKIN ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA

TARIFAK

- Udaletxeko eskailera, eguneko:	4,15 euro
- Udal langilea, orduko:	Udalhitzen arabera
- Mahaiak eta aulkiak	Dohainik

Maileguan emandako materiala adierazitako epean eta moduan itzultzen ez bada, ez zaio berriro materialik mailegatuko pertsona edo elkarte horri urtebeteko epean.

D) EPIGRAFEA. DOKUMENTUAK EMATEAGATIKO TASA

TARIFAK

A4 agiri ofizialaren fotokopia, zuri-beltzean	0,15 euro
A3 agiri ofizialaren fotokopia, zuri-beltzean	0,27 euro
Planoen fotokopia	2,40 euro
A4 agiri ofizialaren fotokopia, koloretan	0,40 euro
A3 agiri ofizialaren fotokopia, koloretan	0,77 euro
Dokumentua konpultsatzea	1,18 euro
CD kopiak (CDa barne)	4,35 euro
Pen driver kopiak	1,26 euro

E) EPIGRAFEA. HIRIGINTZAKO LIZENTZIAGATIKO TASAK

* Ekitaldian aplikatutako tarifak honako hauek dira:

- Partzelazioengatik, banantzeengatik, eraikinen erabilera aldatzeagatik, eraikitako espazioa zatitzeagatik, partzela-unitatea eta antzekoak mantenduz (jatorrizko eta ondoriozko partzela bakoitzeko).	33,85 euro
- Finkei, egikaritze-unitateari edo sektoreari buruzko zedulak eta hirigintza-txostenak egitea, interesdunak eskatu ondoren.	52,00 euro
- Txostenak egitea urbanizazioei, obrak gauzatzeari edo antzekoei, kokalekuei, jardueretarako betekizun edo mugei eta bestelakoei buruz	10,65 euro
- Espedienteak izapidetzea partikularrek eskatuta	Iragarkien argitalpenaren kostua

**F) EPIGRAFEA. UDAL HILERRIAN ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA.**

A) Ehorzteko eta lurpetik ateratzeko eskubideak	35,45 euro
B) Horma-hilobi	Betiko esleipena 524,85 euro
	Aldi baterako okupazio-eskubideak (urtean) 52,50 euro
	Errautsetarako horma-hobia 210,30 euro
	Aldi baterako okupazio-eskubideak (urtean) 21,05 euro
C) Lurpean ehorztea: aldi baterako okupazio-eskubideak (urtean)	52,50 euro
D) Lurren lagapena (metro koadroko)	265,45 euro
E) Lurperatzaile zerbitzua (zerbitzuko)	
Ehorzketak	Horma-hobian 123,20 euro
	Panteoian 192,55 euro
	Lurrean 462,25 euro
	Errautsak horma-hobian edo panteoian 123,20 euro
Lurpetik ateratzea	Horma hobian 184,90 euro
	Panteoian 208,35 euro
	Lurrean 312,90 euro

APLIKATU BEHARREKO ARAUAK:

1. Subjektu pasiboek kasuan kasuko zerbitzuak emateko eskatuko dute.
2. Subjektu pasibo zergadunak dira baimena emateko edo zerbitzua emateko eskatzaileak eta, hala badagokio, emandako baimenaren titularrak. Subjektu pasiboaren zerga-betebeharren erantzukizun solidarioa izango dute Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 38. eta 39. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek.
3. Mausoleoak eta panteoiak eraikitze baimen-eskaerarekin batera, dagokion proiektua eta memoria aurkeztuko dira, fakultatibo eskudunak baimenduta.
4. Tasa sortzen da, eta ordaindu beharra sortzen da kargapeko zerbitzuak ematen hasten direnean; ondorio horietarako, ulertuko da zerbitzu horiek eskatzen direnean hasten dela tasa.
5. Zerbitzu bakoitza banaka eta modu autonomoan likidatuko da, eta zerbitzu hori eman ondoren jakinaraziko da, udal-kutxetan zuzenean sartzeko, Diru-bilketako Erregelamendu Orokorrean adierazitako moduan eta epeetan.
6. Hilerria zaintzeko, mantentzeko eta garbitzeko zerbitzuak emateagatik, kuota eskatuko zaie hileta-eskubideen titularrei, betiko.



7. Honako zerbitzu hauek salbuetsita egongo dira:

- a) Ongintzatik datozen asilatuen ehorzketak, baldin eta hoditeria aipatutako establezimenduen kontura eta hildakoen familiak ordaindutako inolako hileta-ponparik gabe egiaztatzen bada.
- b) Solemnitate-txiroen hilotzak lurperatzea.
- c) Agintaritza judizialak agindutako eta hobi komunean egindako ehorzketak.

8. Esleipedunak izango du horma-hobia mantentzeko ardura.

9. Nitxoak okupatzeko aldi baterako eskubideetarako, gehienez ere urte kopuru bat ezartzen da (hamar urte gehienez), eta urtero ordaindu beharko da aprobetxamendu horiek arautzen dituen Ordenantzak urtero ezartzen duena.

10. Edozein arrazoiengatik hutsik geratzen diren hilobi edo nitxo guztiak Udalaren mesederako izango dira.

11. Betiereko hilobi edo nitxoei dagokien tarifa ordainduta eskuratzen den eskubidea ez da lurraren jabetza fisikoarena, baizik eta lurperatutako espazio horietan hondakinak betiko kontserbatzearena.

12. Igande eta jaiegunetan, hileta-hileta-elizkizunetan baino ez da emango lurperatzaile-zerbitzua.

13. Udalak Aguraingo udalerrian erroldatuta dauden pertsonen eskura jartzen ditu udal-lokaletan dauden lokalak, udalerrian erroldatuta dauden hildakoak agurtzeko ekitaldiak egin ditzaten. Lokal horien erabilera udal-lokalen alokairuei buruzko ordenantzan jasotako irizpideen arabera arautuko da.

Zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala behin betiko onartu zen azken aldaketaren ondoren, 2025eko abenduaren 5ean, eta ALHAOn argitaratu ondoren sartu zen indarrean.

**ORDENANTZA 9. ZK****AGURAINGO UDALA****ARABAKO LURRALDEA****UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA ZERBITZUAK EMATEAGATIKO ETA
JARDUERAK EGITEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK****1. Artikulua**

Udal honek, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren 2.1.h artikuluan eta 46. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, prezio publikoak ezarri eta galdatzen ditu honako epigrafe hauetan jasotzen diren zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, eta horiek osatzen dituzte.

2. Artikulua

Ordenantza Aguraingo udalerri osoan aplikatzen da.

3. Artikulua

Zerbitzu edo jardueren onuradunek ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharko dituzte.

4. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen tarifak ordenantza honetako epigrafeetan jasotakoak dira.

5. Artikulua

Eska daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira, eta ezingo dira murriztu dagozkien epigrafeetan adierazitako zenbatekoetan.

6. Artikulua

Ordenantza honetan aipatzen diren udal zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko, aldez aurretik Aguraingo Udalarari eskatu beharko zaio. Zerbitzu edo jarduera horiek, nolanahi ere, ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean eman direla ulertuko da, eta horiek luzatu ondoren, prezio publikoa ordaintzen ez bada, automatikoki ezin izango da zerbitzua eman edo jarduera egin.

7. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denetik sortzen da.

Hala ere, zerbitzuak ematen direnean edo dagoeneko onartuta eta luzatuta dauden jarduerak



egiten direnean, ordaintzeko betebeharra tarifetan adierazitako aldi natural bakoitzaren lehenengo egunean sortzen da.

8. Artikulua

Prezio publikoa epigrafeetan ezarritakoaren arabera ordainduko da, Udal honek erabakitakoaren arabera.

9. Artikulua

Prezio publikoa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

10. Artikulua

Prezio horiengatik izandako zorrak premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez galdatu ahal izango dira.

11. Artikulua

Kuotetako hobariak epigrafeetan zehaztuko dira, Udal honek erabakitakoaren arabera. Azken xedapena

Ordenantza fiskal honen azken aldaketa 2025eko abenduaren 5ean onartu zen behin betiko, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berariazko aldaketa edo indargabetzea erabaki arte.

9.1. EPIGRAFEA: UDAL MUSIKA ESKOLAKO ZERBITZUA EMATEAGATIK PREZIO PUBLIKOA.

"Agurain" Musika Eskola Publikoak emandako zerbitzuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Barne Erregimeneko Araudia.

ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Aguraingo Musika Eskola Publikoaren (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Zortziko Musika Eskola) helburu orokorra musikako prestakuntza praktikoa eskaintzea da, edozein adinetako herritarrei zuzenduta, bokazio eta gaitasun berezia dutenen ikasketa profesionaletarako orientazio- eta prestakuntza-funtzioari kalterik egin gabe.

Ilido horretan, irakaskuntza-aukera bakarra eskaintzen du, bere helburuak eta edukiak kontuan hartuta.

Aukera hori maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak aipatzen dituen 1, 2. eta 3. mailetan egituratzen da:



- 1. maila edo harremanetarako maila (4-7 urte). Ez da gaitasun-mailarik egongo. 4 ikasturteko iraupena izango du.
- 2. maila edo hastapeneko (8 urtetik aurrera). Lortu beharreko gaitasuna ikastetxearen hezkuntza-proiektuan ezarritakoa izango da.
- 3. maila edo finkatze-maila. Lortu beharreko gaitasuna ikastetxearen hezkuntza-proiektuan ezarritakoa izango da, , edo, bestela, instrumentu- edo ahots-taldeetan moldatzeko aukera ematen dion instrumentuarekin edo ahotsarekin independentzia-maila eskuratzen duen ikaslearen antzekoa. 6 ikasturteko iraupena izango du.

DAGOZKION IKASGAIAK eta IKASTAROAK

- 1. maila.
- Musika-hizkuntza.
- Bakarlari kantua.
- Instrumentu-espezialitatea: udalak ikasturte bakoitzean ezarriko du: biolina, biola, biolontxelo, tronpeta, tronboia, bonbardino eta tuba, zeharkako txirula, klarineta, saxofoia, perkusioa, pianoa, organoa, akordeoia, gitarra, trikitixa, txistua, alboka, dultzaina, gitarra elektrikoa eta baxu elektrikoa.
- Instrumentu-multzoa
- Ahots-multzoa.
- Konboak.
- Armonia modernoa.
- +65 tailerra.
- Kontserbatoriora sartzeko probarako prestatzea.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako beste espezialitate batzuk.

Udalak ikasturte bakoitzerako adosten dituen tailerrak eman ahal izango dira.

Musika Hizkuntzako Ikastaroak.

18 urtetik beherako ikasleek derrigorrezko musika-hizkuntzako 4 ikastaro egingo dituzte, Musika Eskolako musika-hizkuntzako 4 ikastaroen pareko aurretiazko ezagutzak dituztela egiaztatzen dutenak izan ezik.

18 urtetik gorako ikasleek, Barne Araubideko Araudian jasotakoaren arabera berariazko modalitatean kokatuta daudenek, derrigorrezko musika-hizkuntzako 2 ikastaro egingo dituzte, Musika Eskolako musika-hizkuntzako 2 ikastaroen pareko aurretiazko ezagutzak egiaztatzen dituztenak izan ezik.

Ikasturte honetarako asteen 30 minutuko dedikazioa ezartzen da ikasle bakoitzeko.



TRESNAK UZTEA

Musika tresna bat ikasteak eguneroko praktika eskatzen du, eta horretarako beharrezkoa da instrumentu bat izatea. Musika tresna propiorik ez badu, ikaslearen ardura izango da praktikatzeko beste aukera bat aurkitzea.

Hala ere, Musika Eskolaren jabetzako material instrumentalaren erabileraren lagapenaren helburu bakarra Musika Eskolan matrikulatutako ikaslearen ikasketa pertsonala erraztea izango da, prestakuntzaren lehen ikasturtean. Denbora hori igarota, ikasleak ikasketekin jarraitzen badu, musika tresna bat jabetzan eskuratu beharko duela ulertuko da.

Dena den, Musika Eskolak instrumentu jakin batzuk ditu jabetzan, eta ikasleei utzi ahal izan dizkie etxera eramaten, lagapen-hitzarmen baten bidez, honako zehaztapen hauekin:

- Lagapen horren iraupena, Musika Eskolako eskola-kontseiluak onartutakoa, ikasturte batekoa izango da, eta musika-tresnak erabilgarri dauden adina ikasturtera luzatzeko aukera egongo da. Ikasturte bakoitzean, dagokion koadroan adierazitako urteko kuota bat ordainduko da.
- Musika Eskolako instrumentu-multzo batean edo horren osagarri batean (Tokiko Musika Banda) parte hartzen ari diren ikasleek lehentasuna izango dute instrumentuak esleitzeko orduan. Hori guztia azpimarratuz Musika Eskolak, instrumenturik ez badu, ez du inolako erosketarik egin beharko. Era berean, talderen batean parte hartzen ari diren ikasleek (Musika Banda, Lautada orkestra, etab.) erabiltzen dituzten Eskolaren jabetzako instrumentuak denbora gehiagoz laga ahal izango dira, betiere instrumentuen eskuragarritasunaren arabera eta Musika Eskolako eskola-kontseiluak aldeztutako baldintzen arabera.
- Aurreko paragrafoan aipatutako ikasleei esleitu ondoren tresna gehiago izanez gero, errolatuta daudenek izango dute lehentasuna, eta, gero, sobratu ezker, zozketa egingo da.
- Ikaslea adingabea bada, gurasoek edo tutoreek konpromisoa hartzen dute lagatako material instrumentala egoera ezin hobean zaintzeko eta mantentzeko, bai eta material horri eragiten zaion kalte oro konpontzearen kostuari ekonomikoki erantzuteko ere. Bestela, ikasleak lagapen-eskubidea galduko du, eta, aldi berean, ordaindu egin beharko du, eta Udalak egingo du, gero gastua jasanaraziz.
- Era berean, instrumenturen bat lagata duten ikasleen kontura izango dira mihiak eta norberak erabiltzeko gainerako material suntsikorak erostea.

Tresnak lagatzeko kuoten koadroa

TRESNAK UZTEA	
Kuota bakarra	50€



KLASEEN IRAUPENA, MATERIALAREN ARABERA:

- **1. maila edo harremanetarako maila.** 1. maila osoan lerro bakarra egongo da adinaren arabera..
 - **4 eta 5 urteko taldeak.** Ikasle/talde kopurua: 12 gehienez eta 6 gutxienez. Astean ordubete/talde, 30 minutuko bi klasetan.
 - **6 urteko taldea.** Ikasle/talde kopurua: 12 gehienez eta 6 gutxienez. Astean ordubete eta 30 minutu/talde, 45 minutuko bi klasetan.
 - **7 urteko taldea.** Ikasle/talde kopurua: 14 gehienez eta 6 gutxienez. Astean ordubete eta 30 minutu/talde, 45 minutuko bi klasetan. Ikasleek Musika Eskolan ematen diren instrumentuen tailer moduko eskolak jasoko dituzte, 2. mailan ikasi beharreko instrumentua informazio gehiagorekin aukeratu ahal izateko.

* Gutxienezko ikasle-taldera iristen ez bada, eskola-kontseiluan bi talde elkartzeko aukera baloratuko da.

- **Musika-hizkuntza.**

Aurreikusitako musika-hizkuntzako ikastaro guztiak (1., 2., 3. eta 4. mailak) gehienez 20 ikasleko taldeetan emango dira, eta gutxienez 6 ikasleko taldeetan, eta astean gehienez 90 minutuko iraupena izango dute. Taldeak gero berregituratu ahal izango dira, ikasle-kopuruari eta eskolen iraupenari dagokienez, baldin eta taldeak osatzen dituzten ikasleen kopuruak, gehiegizkoak zein txikiagokoak, ikaskuntza-prozesu egokia eragozten badu. Nolanahi ere, berregituratze hori, justifikatuta, ezin izango da 4 pertsona baino gutxiagokoa izan.

- **Irakaskuntza Nagusia, instrumentuarena edo kantuarrena.**

Instrumentuaren edo kantuarren irakaskuntza nagusirako astean gehienez 30 minutuko dedikazioa ezartzen da ikasle bakoitzeko.

Eskolak, definizio kolektiboaren edo partekatuen arabera, saioen erdietan emango dira gutxienez, baina, antolaketa-arrazoiengatik (taldea osatzeko ezintasun nabarmena, ikasleen maila-, gaitasun- edo interes-desberdintasunengatik edo ikasleen ordutegi-erabilgarritasunagatik), arreta indibiduala izan daiteke nagusi.

- **Multzoak (instrumentalak eta bokalak) eta konboak irakastea.**

Taldeentzako eskolen iraupena lortu nahi diren helburuen arabera ezarriko da, baina, oro har, gutxienez 30 minutuko dedikazioaren eta gehienez astean 60 minutukoa izango da. Justifikatuta eta Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Musika Eskolako lehendakariak onartuz gero, astean 60 minutuko igoera adostu ahal izango litzateke guztira, betiere parte-hartzaileen kopurua dela eta iraupen luzeagoa behar bada.



- **Irakaskuntza osagarriak.**

Irakaskuntza osagarrien denborak, puntualak eta aldi baterakoak (ikastaroak, tailerrak, etab.) edo iraunkorrak izan, Musika Eskolak ezarriko ditu, proposatutako helburuen arabera.

IKASLEEN ASISTENTZIA

Ikasle guztiek egiaztatu beharko dute ikastetxean jasotako ordu-dedikazioari dagokion aprobetxamendua, eta, bestela, Musika Eskolatik kanpo utzi ahal izango dira, Barne Erregimeneko Araudiak ezartzen dituen mekanismoen bidez.

Ikasturtean zehar musika-tresnan edo taldean 6 hutsegite edo gehiago egiten dituzten pertsonak baja emango zaie musika-eskolan, gaixotasunagatiko edo justifikatutako arrazoiengatik bertaratze-hutsegiteak izan ezik.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Musika Eskolan sartzeko gutxienezko adina lau urtekoa da.
- Ikasle guztiek (zaharrak edo berriak, salbuespenik gabe) egin beharreko ikastarorako izena emateko eskabidea bete beharko dute, matrikulazio-arauetan ezarritako prozedurari jarraituz.
- Aurreko ikasturteetan zerbitzua ematearen ondoriozko kuotak ordainduta izatea.
- Ikasleren batek hezkuntza-premia bereziren bat badu, Musika Eskolari jakinarazi beharko dio matrikulatu aurretik, eta ez da Eskolaren erantzukizuna izango premia hori jakinarazi ez bada.

Eskabideen balorazioa eta sarbide prozesua

Ikasgai bakoitzeko plaza-kopurua mugatua dela kontuan hartuta, Musika Eskolako ikasleen hautaketa honela egingo da:

- Aurreko ikasturteetan matrikulatutako ikasleek lehentasuna izango dute eskatzaile berrien aldean. 1. mailako (7 urte) azken kurtsoko ikasleek ere lehentasuna izango dute, baldin eta hurrengo ikasturtean plaza libreak badaude aukeratutako instrumentuan; kasu horretan, plaza erreserbatuko zaie.
- Aurreko ikasturtean musika-tresnarik gabe musika-hizkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasleei emango zaie lehentasuna plazak esleitzeko orduan, bai eta eskolako instrumentu-multzoren batean bakarrik ikasten dutenei ere, instrumentuan matrikularik izan gabe.



Eskatzaile berrien kopurua eskuragarri dauden plazen kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da lehentasun-hurrenkera ezartzeko (zozketa honetako arauak ordainketa-baldintzen atalean eta matrikulazio-arauen 2. puntuan azaltzen dira):

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

- Musika Eskolak eskola-egutegiaren arabera hasiko du ikasturtea, eta behar bezala jakinaraziko da.
- Musika Eskolako ordutegiak ikasturte bakoitzaren hasieran onartutako egutegiak ezarritako lan-ordutegiak errespetatuko ditu, eta Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio egutegi hori, arrazoiak edozein dela ere, aldatu behar denean, bai unean-unean, bai etengabe.
- Beste edozein jardueraren ordutegiak, ludikoa, kirolekoa, prestakuntzako edo beste, Musika Eskolak eskainitakora atzeratu beharko dira. Bat badatoz, Musika Eskolak ez du ikasleari ordutegi alternatibo bat eskaintzeko betebeharririk izango.
- Ekainean, irakasleek dei egingo diete ikasleei, eskolen ordutegiak hautatzeko.
- Musika Eskolaren ordutegiak lan-ordutegiak edo araubide orokorreko edo unibertsitateko zentroen ordutegiak baino ez ditu errespetatuko.

ZERBITZUAREN PREZIOAK

Prezio orokorrak:

IKASGAIA	Matrikula	Hileko kuota
1. maila	90 €	40 €
Hizkuntza musikala	90 €	40 €
Musika tresna	90 €	44 €
Armonia modernoa	90 €	40 €
Instrumentu-multzoa edo konboa		7 €
Ahots taldea		7 €
Kantu bakarlaria	90 €	44 €
Irakasketa indartua	150 €	44 €
+65 tailerra	90 €	44 €

Hobariak:

1.- Familia-unitateek, gainera, honako hobari hauek izango dituzte:

- Familia-unitatetik Musika Eskolan matrikulatuta badaude, 2 pertsonak ehuneko 5eko deskontua izango dute bigarren pertsonaren matrikulazio-kuotan.



- Familia-unitatetik 3 pertsona Musika Eskolan matrikulatuta daudenean, deskontua hirugarren pertsonaren matrikula-kuotaren ehuneko 10 izango da.
- Familia-unitatetik 4 pertsona edo gehiago Musika Eskolan matrikulatuta daudenean, deskontua laugarren pertsonaren eta hurrengoaren matrikula-kuotaren ehuneko 15ekoa izango da.

2.- Hobarien taula hau ezarriko da hileko kuotan, errentaren eta bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera:

	T-1	T-2	T-3	T-4	T-5	T-6
Bizikidetzaren unitateko kide-kopurua	LGStik behera (15.876,00 € arte)	LGStik gorako errenta 1,5xLGSra arte (15.876,00 € 23.814,00 € tartean)	1,5xLGStik gorako errenta 2,5xLGSra arte (23.814,00 € 39.690 € tartean)	2,5xLGStik gorako errenta 3,5xLGSra arte (39.690,00 € 63.504 € tartean)	3,5xLGStik gorako errenta 4,5xLGSra arte (63.504 € 71.442 € tartean)	4,5xLGStik gorako errenta (71.442 €-tik aurrera)
1	75%	50%	45%	40%	20%	0%
2	80%	55%	50%	45%	30%	0%
3	90%	60%	50%	50%	40%	0%
4	90%	75%	55%	50%	50%	20%
5 edo gehiago	95%	85%	55%	55%	50%	30%

"Familia-unitatetzat hartuko da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehaztutakoa."

Hobaria baliatzeko baldintzak eta izapide formalak.

- Familia-unitateko kide guztien onura fiskalaren aurreko urteko PFEZaren fotokopia konpultsatua edo hori egiteko betebeharririk ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

- Eskabideak aurkezteko epea 3 hilabetekoa izango da, urte bakoitzeko ekain-iraila bitartean, eta hileko kuotari kenduko zaio.

Hobari hori bateragarria izango da artikuluan honetan jasotako gainerako hobariekin.

ORDAINTZEKO BALDINTZAK ETA MATRIKULATZEKO PROZEDURA

Matrikularen prezioa, pertsonala eta besteren ezina, honela ordainduko da:



1.- Aurreko ikasturtean matrikulatuta egon ziren ikasleak (4. Mailako lehen maila izan ezik):

Matrikulatzeko datak eta prozedura:

1.1.- Datak maiatzaren hasieran argitaratuko dira, Aguraingo Udalaren webgunean eta Musika Eskolako iragarki-oholean bertan argitaratuz.

Aurrematrikularen lehen zati honetan, ikasleek online igorri beharko dute inskripzioa. Izena emateko eskabideak telematikoki egin beharko dira matrikularen ordainagiriarekin batera. Hala ere, Musika Eskolak ordutegi zehatzak jarriko ditu Eskolan bertan egiteko, nahi duen eta telematikoki egin ezin duen ikaslearentzat. Matrikula ez bada behar bezala egiten ezarritako epearen barruan, ikasleek erreserbarako eskubidea galduko dute.

1.2.- Matrikulatu nahi den ikasturtean jarraitu nahi ez duten ikasleek idatziz jakinarazi beharko diote eskolari, matrikulazio-aldian, posta elektroniko bidez.

1.3.- Aurreko ikasturtean ikasgai berriren bat egin nahi duten ikasleek online matrikula-orri automatikoan jaso beharko dute, eta ikasgai berri horretarako, ikasle berri gisa hartuko dira kontuan.

2.- Aurreko ikasturtean 1. mailako 4. mailan matrikulatutako ikasleak:

Matrikulatzeko datak eta prozedura:

2.1.- Datak maiatzaren hasieran argitaratuko dira, Aguraingo Udalaren webgunean eta Musika Eskolako iragarki-oholean bertan argitaratuz. Modu telematikoa egingo da, edo Musika Eskolak eskatzen dion inprimakia entregatuz, instrumentua aukeratzeko hiru aukerekin.

2.2.- Matrikulazio-epea amaituta, zozketa egingo da, eta, horretarako, alfabetoko letra bat aterako da espezialitate instrumentala aukeratzeko hurrenkera ezartzeko. Beste zozketa bat egingo da, eta beste letra bat aterako da, matrikulatu beharreko ikasturterako Musika Eskolako itxaron-zerrendak egiteko. Egun horretan bertan, Musika Eskolan, Musika Eskolako itxarongelan, jakinaraziko da 7 urteko 1. mailako ikasleek instrumentua aukeratzeko dutela, adierazitako lehentasunaren arabera.

2.3.- Ondoren, ikasleak matrikularen ordainketari ekingo dio hau formalizatzeko. Egun horietan matrikula behar bezala egiten ez bada, ikasleak plaza erreserbatzeko eskubidea galduko du.

3.- Ikasle berriak

Matrikulatzeko datak eta prozedura:

3.1.- Datak maiatzaren hasieran argitaratuko dira, Aguraingo Udalaren webgunean eta Musika Eskolako iragarki-oholean bertan argitaratuz.

Aurrematrikularen lehen zati honetan, ikasleek online igorri beharko dute aurreinskripzioa. Izena emateko eskabideak telematikoki egin beharko dira. Hala ere, Musika Eskolak ordutegi



zehatzak jarriko ditu Eskolan bertan egiteko, nahi duen eta telematikoki egin ezin duen ikaslearentzat.

3.2.- Aurre matrikulazio-epea amaituta, onartutako ikasleak dituzten zerrendak eta itxaron-zerrendak argitaratuko dira.

3.3.- Erreklamazio-aldia: aurre matrikulazio-epea amaituta eta onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratuta, Musika Eskolak erreklamazio-epeak hasiko ditu, eta behar bezala jakinaraziko dira.

3.4.- Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartu diren pertsonen matrikularen justifikazioa ordaindu eta aurkeztuko dute udalak ezarritako epean. Justifikazioa garaiz aurkezten ez bada, ikasleek plaza galduko dute.

Ekonomia- eta finantza-egoeragatik ordainketa ezarritako epeetan egitea aldi baterako eragozten dien pertsonen atzerapena edo zatikapena eskatu ahal izango dute, eta egoera hori zerga-araudiaren arabera egiaztatu beharko dute.

INPRIMAKIAK BETETZEA

Interesdunek Musika Eskolan bertan (Zapatari kalea 33), astelehenetik ostegunera, online izena emateko esteka bidaltzeko eskatu ahal izango dute, edo bestela, Aguraingo Udalaren webgunetik deskargatu (www.agurain.eus).

Eskabidea bete ondoren, online soilik bidaliko da, adierazitako egun eta orduetan.

MATRIKULAREN ITZULKETAK ETA/EDO KUOTAK ETA BAJAK

Itzulketak.

Matrikula, Musika Eskolan matrikula egin ondoren eta ikasturtea hasi baino lehen, sarrera-proba bat gainditu ondoren aurrematrikulatu den ikasturtean Kontserbatorio Profesional edo Goi Mailako batean onartua izan eta agiri bidez egiaztatzen duen ikaslearen kasuan bakarrik itzuliko da.

Halaber, ikasleek ezin badute ikasturtea hasi musika-eskolako langileek ordutegi-aldaketak egin dituztelako.

Hileko kuotak, ikaslea Musika Eskolan noiz hasiko den kontuan hartu gabe, oro har eta hainbanaketarik gabe ezarritakoak izango dira.

Ikasleak ez badu hilabeteko eskolen % 75 jasotzen irakaslearen bajagatik, ez zaio hilabete horretako kuota kobratuko.

Klasera ez joateak, arrazoia edozein dela ere, baita justifikatua ere, ez du inolako murrizketarako eta/edo itzulketarako eskubiderik sortuko.

**Bajak.**

Eskolan baja hartzen duten ikasleek ikasturtea amaitu arte ordaindu gabe geratzen diren hilabete guztiak ordainduko dituzte, salbu eta gaixotasunagatik edo agiri bidez behar bezala justifikatutako arrazoi medikoengatik.

Baja bat gertatuz gero, eta diziplinak plaza izanez gero eta hori uneko urteko urtariletik aurrera izanez gero, ikasle berriak ordaindu beharreko matrikularen zenbatekoa onartutako prezioaren % 75 izango da. Egun hori baino lehen alta emanez gero, ikasle berriak matrikula eta kuota guztiak ordaindu beharko ditu, plaza eskuratzeko datatik aurrera.

ESKAERAK

Eskabidean agertzen diren datuak faltsutuz gero, deuseztatu egingo da.

ORDUTEGIA AUKERATZEA

Ekaineko bigarren hamabostaldian irakasleek ikasleak deituko dituzte ordutegiak aukeratzeko.

